

Zoraluze edo Plaentzia'ko  
ikuskizun bat.

PERNANDO PLAENTXIATARRA

# PERNANDO PLAENTXIATARRA

(Plaentxia-Eibarretan bildutako  
ipui sorta)

**Biltsalle:** San Martin'dar Yon

**Tajutzalle:** Etxaide'tar Yon

**Dibujugille:** Larrañaga'tar Paulino



1 9 5 7

BERNARDINO  
DE LA TORRE

Historia de la  
ciudad de

San Sebastian  
de Guipuzcoa  
y sus alrededores



---

«Itxaropena argitaldaria» irar-lantegitan argifara emana  
P. Unzurrunzaga - Zarautz

*SAN MARTIN'DAR YON NIRE ADISKIDE  
ON ETA EUSKALTZALE GARTSUARI*

*Nori, iri baizik, liburutxo onen opari?  
Bide-bazterretan galdutako euskal-  
artaleok bana bana biltzen aín leia-  
tsu jardun aizen orrek, bildumatxo  
ontan arkituko al-duk ire neke-lanen  
pozkarri.*

Tajutzalleak

«HEUSKARA, IALGI ADI PLAZARA!»  
(Bernard d'Etxepare, 1545)

## ESANBEARRAK...

“Egundo olakorik! —Esan dezake bateonbatego ipui auen izenburua irakurtzean—. Pernando Plaentxiatarra noiztik nora sortu zaigu? Amezqueta'kuaren berri ba-genun, baiñan, Plaentxia'koarenik... ez egundaino!”

Ona ba emen, Plaentxia'ko edo Plazentzia'ko Pernando, Amezqueta'koaren anai, senide, gogaide... orainaldiko euskaldunak bere umorearen txingarrak asemin.

Noiz ta nun jaiotzen zen gure Pernando? Ibaizulo batean murgildurik dagon Plazentzi, Plazentzia den ezkeroz, Pernando'ren anima, gogo, espiritua, Plazentzitar bakoitzaren gogosoinean bizi da.

Beraz, liburutxo ontan bildu dugun ipui sorta Plaentxiatarren gogo-arnasa dela esan ditekete. Nire lana, beroien biltzea, edo obeki mintzatuz, norbaitek bilduak literatur soinekoz apurtxo bat jaztea eta Pernando'ren izenpean

ezartzea izan da soilki, ipuien mami, jario eta gatzia Plaentxia'ko erriarena baita. Ontaz, badakizute: *Pernando Plaentxiatarra Plazentzia-ko erria bera da eta erri au txit antziñakoa dela danok ba-dakigu. Plazentziatarren artean esaera da beren erriak eman ziola sortzea Eibar'i. Nunbait, beren zuloan ezin kabitu eta beste zulo batean jausi ziran. Orra, Plaentxiar batek nola aldeztu zun bere erriaren antziñatasuna Eibartar batek erasoan ekin zionean. Eibartarrak: —Plaentxia munduaren i...ko zuloa dok!— Itzetik ortzera Plaentxiatarrak: —Da, Eibar k...k..., Plaentxia'tik urten juanda—. Beraz, Plazentzia, antziñakoa eta leñargia dugu, "baiña, (Plaentxiatarrai) etzaie erran beharrik, —esan dezagun Etxahun'ekin— berak baitakite hori".*

Obe litzake noski, Plaentxiatarren grazi berezia gardenago agertzeko, ipuiok Plazentzia'ko euskeran argitara, baiñan, ortara joko ba'genu, Gipuzkoa'rik geienak ez luke onartuko, Plazentzia'n mintzatzen den Bizkai kutsuko euskera adigaitza baita giputz nagiontzat eta danok dakigunez irakurlerik geienak gipuzkerak ditu. Baiñan, ezta au bakarrik. Orainaldian somatzen dugun euskal-literaturaren batasun mugimenduan, Gipuzkoa'ko izkelgi osotua dugu aukeraturik elburu goitar au ardietsi edo lortutzeko. Bi arrazoi auketik aukeratu dugu gipuzkera ipui auen jantzigarri. Alabai-

ña, sekula etzait ahaztuko, liburutxo au eskei-  
ñita dijoakion nire adiskide miñak kontaturik  
magnetofonoan entzun nitunean (Eibar'ko eus-  
keran) emen agertzen diran ipui batzuk, zela-  
ko atsegiñez egon nintzan aditzen ezin aspertu.  
Ura zen ura, Eibartarraren abotiko euskerak  
zerion gatza ta piperra ipui kontaktetan! Tama-  
la, kontalari trebe onek ez mamitua ipui oe-  
txek. Berak diñonez ordea, izketa egitea bat  
omen eta idaztea beste eta lan ontan trebeago  
naizelakoan, leporatu dit neri idazlana. Gaiñe-  
rakoan, ipui guztiok berak jasorikoak dituzute  
eta idazletxo onek zertxobait apainduak.

Ba-dut, ordea, guztiau baiño beste zerbait  
nagusiago esanbearra irakurlearen jakingarri.  
Liburutxo au elitzake sekula argitaratuko Pla-  
zentzia'ko euskaltzale talde batek argitaltze ar-  
dura beregain artu ezpa'lu. Eskerrik beroenak,  
beraz, Plazentzia'ko euskaltzale gartsu oieri  
euskeraren alde eta bere erriaren alde egin du-  
ten lan txalogarri onegatik.

Eskerrak, bidenabar, Plazentzia'ko erri  
osoari, Euskalerrri'ko uri langille eta alai onek  
egunez-egun darion arnasa baita eskuartean  
daukazun liburutxo au.

Besterik ez... Pozkarri dakizutela baizik  
Euskalerrri'ko "Andaluzi" ontan erne eta azi  
diran ipuitxo txanbeliñok.

Donosti'n, Agorrak 24, 1956

TAJUTZALLEAK



# I

## PERNANDO LARRI TA PARRAGARRI

Gazteak ezkontzea zor dute eta gure Pernando'ri ere etorri zitzaion *zerako zera zertze-ko* garaia. Plaentxiatarrentzat Plaentxia beste mundurik ez omen dago. Ez da noski aundia, baiñan bai iori ta aberatsa eta zerbaiten bearran gertatzen diranean plaentxiatarrak ez dute auzora jo bearrik billa. Neskatil bat begiz jartzeko garaian ere Plaentxiatarra izan dedilla. Alango neskatillak errian euki ta kanpora begira asi? Et, et, et! Gure Pernando'k beñe-pein ala pentsatu zun bere garaian eta Anttoni zeritzan plaentxiar gazte lirañari agertu zion bere biotzeko kiskalmena.

Eztei egunari zorionez eman zioten asiera bi ezkonberriak baiñan etzuten ain zorionean

amaitu. Ikusi dezagun bada zerk samindu zien biziko egunik zorionsuena Pernando ta Anttoni'ri.

Orra ba ! Delako ezti-txangoa (1) edo egin bear eta eztei ondoko lenengo trenara artzera estaziñora jo omen zuten. Eldu zen trenara orru ta marru eta egun aundi arri zegokionez "primera"ko kotxea artu zuten. Makinak txistua jo zun eta Plaentxia'ko eztarri-zuloa atzean utzi zuten amabostaldi batean geiago ez ikusteko pozetan.

Estraperloa ala-kinkirrinera zebillen garaiak ziran Pernando ta Anttoni'k beren "ez egitekoa" egin zutenean, eta lan beltz ortan aritzen ziran gizonak (emakumeak ere bai zenbaite-tan) izurritea (2) lez zabaldu ziran.

Gure maiteminduak sartu ziran kotxeko gelan ala-olako gizontxo bi ba-zetozen. Ezkonberriak ordea etzioten igarri. Izan ere, naiko lan ba-zuten goxo-goxo txutxu-putxuka ziar dutela auzokoari begira egon gabe. Pernando'k naiko kontu ba'zitun bere andrearekin, estraperlistak ere kontu egiten zioten alkipetan zera-maten kontrabandoari. Mundu ontan bakoi-tzak bere maitañoari kontu !

Eibar'era urreratu orduko, estraperlistak bildu dituzte maukak ukalondoraño eta asi dira alkipetik irin zakuak atereaz. Lan onetan

---

(1) Luna de miel.

(2) Peste. Itzez-itzez "temporada de peste".

ziardutela, Fernando gizajoari prakak iriñez blai jarri zizkioten. Berotualdi bat izan zun estraperlistakin, baiñan aiek, (pekatariak nekez maite baitu zaratarik) otxan-otxan barkatzeko esanda aienatu zitzaizkion. Estraperlistak al-dendu ziran, baiñan aien oroitzapena Pernando'ren galtzetan itsasita gelditu!

—Oietxek bai gizon zabar eta ajolakabeak, Fernando! —Ekin zion penatuta Anttoni'k—, Itxura politan utzi ditek soñekorik edereena!

—Bai, Anttoni, “Barkatu” esan da, kaixo motel! Zer egin bear diñagu orain? Ezin ibiliko naun orrela Bilbo'ko kaletan.

—Ua komunera, bai, —diñotsa andre burutsuak—, kendu itzak prakak eta leiотik behera astin-astin egin iriña ondo aienatu arte.

—Arrazoi dun, ene Anttoni. Buru argia aiz iñun buru argirik ba'da. Ago trankil, nire egitekoea belaxe egingo diñat-eta.

—Bai, ibilli axkar-axkar, eu gabe arnasa ere estutu egiten baizaidak.

Pernando joan zen komunera, baiñan bere andretxoari agindutako berealako etorria etzan iñundik ere ain... berealakoa. Denbora benetan luze jotzen asi zen eta Fernando'k bizi zenaren siñalerik ere ematen ez. Zer gerta ere, Anttoni urbildu zen larrixamartua komuneko ate ondo-raño eta biотz таupaka atean kox-kox jo ondoren, onela oju egin zion:

—Ene Pernando, bizi al aiz?

—Oindiño bai, Anttoni, baiñan eztakin ondotxo nire estuasuna!

—Zer duk ba, Pernando?

—Beltza gertatu zaidan! Ik esan bezala galtzak leiotik behera astindu dizkiñat eta iriña ez-ezik galtzak ere joan ditun leiotik behera.

—Ene! —Ekin zion Anttoni'k mintxuriak jo bearrez—, lenago itxusi ba'engon Bilbo'ko kaletan ibiltzeko, oraintxen egongo aiz dotore!

## II

### GILTZA TA PUROA

Pernando, jai arrats artan, —ta noiz ez?— parrandan gelditu zen. Norbaiten lepotik apari dotorea egin zun, orain esaten dugun bezala akeita ta txolak artu ere bai eta puro aundia erdi errerik etxe aldera abia zen.

Gaueko orduak (goizekoak ez ote?) aurre-ra ta etxeko atea itxirik billatu zun. Pernando gizajoak ba-zun naiko lana gau artan burua lepo gainean ote zun jakiten eta giltza billa asit-a, aboan erdi errerik zeukan puroari eldu eta giltza zalakoan zerrallan sartu zun.

Jo ezker, jo eskubi, puroak aterik idikitzen.

ez. Etsi-etsi eginda serenuari ots egin zion eta oles egin:

—Gabon, serenu jauna, —ekin zion totelka Fernando'k eta bultzaka ziara lertutako puroa erakutsiz—, emen ari naiz giltzarekin jo batera ta jo bestera, baiñan ate madarikatu onek eztu ideki nai.

—Nola idekiko zaik, astokillo? —ekin zion serenuak parrez—, giltzaren orde z puroarekin ari aiz-ta.

—Ene! —ots egin zun bat-batean Fernando'k ziara ikaratuta—. Ederra egin diat!

—Zer egin duk ba?

—Giltza erre, gizona, puroa zalakoan!

### III

#### ILBURUKO ZUHURRA (1)

Eneko Inurrategi plaentxiar gizon zuhurak iltzerakoan seme gaztetxo bat utzi zun umezurtz, ez senide eta ez aide.

Eriotzari itzul egiterik etzula ikusi zunean, ilburukoa egitea gogoratu zitzaion. Semea, amar urte baitzitun ozta-ozta, bere adiskide on

---

(1) Testamento sagaz.

baten ardurapean jarri zun, azi ala, bear bezala ezi zezan, eta ogibide on bat erakutsi. Mutillarekin artuko zun nekearen truk, ilburukoan sarigarri auxe agindu zion: "Mutillari ogibide on bat eman ondoren, enparauetatik (1), aitordeak gura duena, eman bezaio Txeru'ri".

Eneko Iñurrategi il zen eta Ander Izurragi'k artu zun Txeru bere ardurapean.

Urteak igaro ziran, Txeru morrosko lerdena egin zen, ogibide on' bat ikasi zun eta gudaritzako epea bete ere bai. Ainbestean, bere burua gobernatzeko lain ba-zala iruditu zitzaion eta aitordearengana joanda kontuak zuritzeko eskatu zion.

—Orra, —esan zion ugazaitak erremindata mutillarenetik geiago xurgaturik etzeukala ikusirik,— ire aitak testamentuan ipiñi ziken ire ezibidearen enparauetatik nik gura nuena iri emateko. Arrazoi aundiarekin jarri ziken ori, nik irekin artutako nekeak bere saria bear baitik. Irekiko gastuak egin ondoren eun milla peseta sobratu dituk ortxe-antxe. Nire nekeak eun milla peseta oso-osorik merezi dizkitek, baiñan, ire aita zenaren seme aizelako amabost milla durokin konformatuko nauk, eta gañerako bost millak iretzako izanen dituk.

Txeru'k, ziara suminduta, bere aitordeari lapur, dollor, zeken eta amaika olako esan ziz-

---

(1) Sobre.

kion, baiñan Ander Izurrategi, ilburuko esanari atxikitzen zitzaion eta Txeru gizajoak etzun lortu (1) bere aitordeak peseta bat geiago ematerik. Aitorde lotsagalduak zionez, Txeru oraindik ere eskertsu egon bear zitzaion, ogeitabost milla peseta ematen baizizkion zertan emanik etzunean.

Txeru'rentzat ordea, aitordearenak, arrazoi ustelak ziran eta gutxieneko erdia ematen ezpa'zion auzitara joko zula eraso zion. Arek berriz, jo zezala nai zunean, auzia bere zula-ta.

Txeru, lege-gizon ezagun batengana joan zen eta bere estuasunaren berri eman zion. Onek argi ta garbi esan zion alderdi txarra zula auzian eta lardaskatzen asi baiño obe zula geldirik egon, diru ametsak galetsi eta aitordeak borondatez eskeintzen ziona artu.

Txeru ordea etzan samurra amor emate ortan eta ez bat eta ez bi, auxe gogora zitzaion: Aitzea zunez, ba-zan Plaentxia'ko errian Fernando izeneko sasi-jakintsu edo baztar-nastalle bat beñepein eta arek argibiderik emango ziolakoan, bere etxera jo zun tximistak egiten.

Azaldu zion Fernando'ri bere auzia xe-xe eta izketan amaitu orduko ekin zion gure sasi-letraduak.

—Zein astokillok esan dik auzitan ez aste-ko? Ire aitak zuzen asko jokatu ziken ilburukoa

---

(1) Conseguir.

egitean diruak ire eskutan uzteko eta ugazaitari sarigarria merezi dikan maillan emateko.

—Nola jaten duk ori? —Erantzun zion arri ta zur Txeru'k—.

—Oso erraz, —ekin zion Pernando'k mai-xukeriz—. Ilburukoak argi ta garbi agertzen dik ire aita zanaren naia: “Aitordeak gura duena, eman bezaio Txeru'ri”. Ots komari! Eztiño “aitordeak, gura duena eman bezaio Txeru'ri”. Aitordeak amabost milla duro nai dizkik beretzat, berak aitortu dunez. Oietxek dituk bada, ain zuzen ere, ire aitaren borondatez iri dagozkikanak. Bai gizona! Auzia irea duk arrazoi orri gogor eustekotan. Emak or!

Iritzi oni elduta Txeru'k jo zun auzitara eta lege-gizon baten baten babesean irabazi ere bai. Onela, aitordeak beretzat nai zitunak Txeru'ri utzi bear izan zizkion eta illobarentzat nai zitunak, auzitegian murriztualdi ederra artuta eldu ziran bere eskutara.

#### IV

### ILLARGIKO PERTSONAK

Beiñola, Pernando ta Txomin'ek, arrituro! astronomiaz ziarduten.



Biak ziran eskolik gabeak, baiñan, burutik falta zuten jarioa mingañetik zuten.

Makiñabat izar abotan erabillita gero, illargira jo zuten. Eta ez bat eta ez bi, Txomin'ek, illargian (1) gizakiak bizi zirala baietsi zun. Pernando'k ezetz ta Txomin'ek ostera baietz.

—Liburu batean irakurri nikan gero!  
—Ekin zion Txomin'ek zin-ziñez.

—Ba'ote? —erantzun zion maltzurki Pernando'k—, ta ilberritan (2) nora joaten dituk bertako bizilagunak?

## V

### PERNANDO'REN GOSE-BILDURRA

Plaentxiatar geienak tripazai galantak omen. Sabela, ordea, sakelaren seme izaki eta bakoitzak norbere sakelak agintzen dion giñoan (3) kontu egin bear sabelari. Pernando'rena nekez egon oi zen iori, sarritan zimel. Ioritasunean aberatsen antzo jan-edan oi zun, gabeta-

---

(1) Iretargian.

(2) Illargi berritan suntsitu (desaparecer) egiten baita lurтарren bixtatik.

(3) Proporzioñoan.

sunean aberatsen lepotik, al-ba'zun beñepein. Alabaiña, Pernando'ren sabel-atsegiñetan murgildu baiño len, orain artean aipatzeko euki dugun xehetasun txiki baten berri eman bearrean gaituzu eta au, ezta, izan ere, esaten atsegiña. Alegia, Pernando'k bere gazte denboran izan zun zorigaitz batez, eizean edo aitzea dugunez, begi bat galdu zun eta noski, utsunearen betegarri kristalezkoa zerabilkin.

Beiñola, ba-zuten Pernando'k eta bere lagunek kaxuela bat alkarrekin jatekoa. Otorduan, uste baiño lagun geiago bildu ziran kaxuelak zerion usai ederrak erakarrita eta noski, an bildu ziranentzako jakia urritxo egiten...

Pernando'ri, nunbait, sabel-guri baiño sabel-aundi obeto baitzan, jakiaren ederrak baiño jakiaren ugariak geiago erakartzen zion. Onetxegatik, bein asi ezker ezin gelditu zen jate kontu ortan. Beraz, etorkin berriak urbiltzen ikusi zitunean purrustaka ta marmarrian asi zen, beroien kulpaz goseak gelditu bearko baitzun.

Tripa ase bat ezin egiñak gero ta amorrazio geiago ematen zion. Izan ere, kaxuela ura ustutzeko etzun laguntzalle bearrik eta bostentzako gertatu zutena (bere ustez bostak goseak gelditzeko lain), zortziren artean banatu bear.

“Kaxuela ori zortzi lagunen artean jateko bate probatu bage gelditzea oñe duk, —zion be-

re baitan Fernando'k—, abo-sapaiari atsegin ematen asi orduko inbiditan gelditzeko besterik ezpaitik balio". "Batek edo iñork ez, —ekin zion berriro Fernando'k ziara erreta lengo leloari jarraiki—. Zotzetan egitea (1) ere ohea litzake. Zotzetan esan dut? Et...et...et! Zotzetan egin gabe dana neuk jatea ohea. Nola baiña? Oraintxen ikusiko duzute ergelok ez bes-tenok!

Onela ziardula, sukaldari aritutakoak atera du kaxuela maira lurruna dariola eta jakia-  
ren usain tentagarriak alako dirdira zoriongarri bat sortu du maikideen begietan.

Danak kaxuelaruntz luzaka ari diran garaian jakiaren tankera norbere begiz juzgatze-ko, Fernando'k atera du bere kristalezko begia ta kaxka!, kaxuelaren erdi-erdian erortzen utzi.

Itzetik ortzera asi zaizkio danak "urdea, asto-petrala, babotzarra, alua, zerria, kertena, sasikume" eta amaika olakoxe esanaz. Fernando'k berriz, parra suelto. Txantxa bat besterik etzela izan, asarrebiderik sortzeko asmoan etzula egin eta abar.

Trumoiaren dunbotsa baretu zen noizpait, baiñan kaxuela artakorik iñork probatu nai ez eta antxen utzi zuten Fernando bere kaxuelarekin ler eta zapart egiten opa ziotelarik.

---

(1) Hechar a suertes.

Kaxuelatik mauka-mauka eta sagardotik zanga-zanga, eztitan ari zen gure Pernando lagunartez geiago gogoratu gabe. Alabaiña, bere eztitasunean kristalezko begia kaxuelara jaurti zula ahaztu egin zitzaion eta alakoan, begia oso-osorik irentsi zun zintzurretik behera.

Bere adiskideak jakin ba'lezate, berak kaxuelara botatako begia irentsi zula, Plaentxia ta Eibar guziko parregarri litzake luzaro gabe. Zer egin beraz, kristalezko begirik gabe nabaitu etzezaten biaramon goizean?

“Zintzurretik barrena sartu duk, ezta? —Zion Pernando'k bere buruari—, Ba, ortikan barrena sartzen dena, beste nonbaitetik barrena ateratzen duk. Beraz, biar goizean, apari onen ustualdia egiterakoan, bazterrak ondo arakatu bai ta kitto”.

Esan eta egin. Eztakit kaka-pilloari asko eragin bear izan ote zion bere begi ospatsua topatzeko, baiño dena-dela arkitu zun eta uretan garbitualdi bat emanda, bere kristalezko begiarekin atera zen kalera.

—“Bai jauna, bai! —Zion gertatutakoa kontatzeko lotsa aienatu zitzaionean—. Begi xeblebre onek ikusteko balio ezpa'dik ere, bereak eta asto beltzarenak ikusia ziok noizpait”.

## VI

### ERANTZUPEN ZUHURRA

Obra batean lanean ari zela, Pernando'k esku-gurdia (1) ondo bete gabe omen zeraman. Nagusia oartu zitzaion eta esku-gurdia erdi betean ikusirik, esan zion Pernando'ri:

—Esku-gurdi orrek bete aundiagoa artuko luke, Pernando.

Pernando'k berriz itzetik ortzera:

—Baita larunbateko diru-zorroak ere, nagusia.

## VII

### ZENBAT JAUNGOIKO?

Pernando'ren mutikotakoa dugu au. Joan omen zen bein aitortzera eta apaizak gure motikoa biurri xamarra edo ezjakiña iritzirik, dotriñako galdera batzuk egitea erabaki zun.

—Esaidak, Pernando, zenbat Jaungoiko dituk?

—Iru, jauna.

—Iru? Astokillo galanta i! Iru Jaungoiko beraz, e?

---

(1) Carretilla.

Ta ondoren izugarrizko erretolika bota zion Fernando gizajoari, baiñan etzion esan Jaungoiko bat bakarra zanik edo Fernando'k ikararen-ikaraz etzion aditu beñepein.

Amaitzean, Erramun bere adiskidea ikusi zun aitortzeko txanda-zai. Fernando'k, urbildu ta esan zion :

—I, Erramun, apaiz jaunak zenbat Jaungoiko diran galdetzen ba'dik, zer esan bear diok?

—Bat bakarra dela.

—Bat bakarra? Alajaiña, nik iru dirala esan ziokat ta ia prejitu netxiok eta ik bat?... Txitoa bezala itoko au, Erramun!

## VIII

### AMAIKETAKO LEGORRA

Pernando beti izan zen langille kaxkarra. Gizajoak etzun lanerako griñarik eta lanean ari zanean burua tabernan, lagunartean eta nesketan euki oi zun. Beiñola ordea, lanean gogor saiatzeko gogoia artu zun, andregaiia artu zunean edo, nunbait,...bizibearrak eraginda.

Ontaz ba, bere sailleko bi langillekin alkarrekiko nor geiagoka egin zun lanean. Eta ez ori bakarrik. Irurak mozkor galantak baitzi-

ran, ardorik geiago ez probatzeko asmo sendo-  
-sendoa artu zuten, ez kalean, ez etxean, ez  
lantegian... Oraindik geiago: Ardoaren izen  
madarikatua abotan geiago ez artzea zin egin  
zuten, eta lanean ari ziran garaian inork ardo-  
izenik aipatzen ba'zun, aipatu soilki, bost pe-  
setako multa ordain bearra izanen zuten. Era-  
bakiak artzen etziran motzak gure iru ardoza-  
leak. Betetzen ainbestekoak ote ziran laister  
ikusiko dugu.

Biaramon goizean joan dira iru anaiak  
txintxo-txintxo lanera eta ekin diote beren ar-  
loari. Goizeko amarrak arte etzan inor iruretan  
ardoa zanik ere gogoratu. Garai ortan ordea  
ogibitarteko bat jan oi zuten iru adiskideak po-  
rroi bat ardoz erdian jarrita. Egun artan bi-  
llera tristia izan zuten, beren asmoari jarrai-  
tuz otordu legorra egin bear baitzuten.

Ogibitartekoa legorrik jaten ziarduten ar-  
tean, iruretako batek onela ekin zion oroimi-  
ñez:

—Ura zen gauzea!

Bigarrenak berriz, zertaz ziardun igarri-  
rik, osapen au erantxi zion:

—Artatik edaten eztuk makala jendea.

Eta Pernando'k berriz, enkargutako mu-  
tikoari oju egiñaz:

—Mutil, artzak gaintxilla (1) eta ekarri zak  
betea!

---

(1) Botijo.

Ainbestean lurra jo zun Pernando ta bere bi adiskideen asmo sendoak. Ardo izenik ez aipatzea bat zen eta artatik edan gabe egon bearra bestea eta iru zagikumeak diru-nekerik ordaindu gabe gaintxilla oso-osorik ustu omen zuten.

Lan egitea ardoa edatea ba'litz, nor lanean gure Pernando añaikorik? Baiñan... "ba'lizko olak burnirik ez".

## IX

### PERNANDO ERREMENTARI IKASLE

Pernando amalau urteko motikoa zala, bere gurasoak errementari batengana eraman zuten ogibidea ikastera.

Egun batean, Pernando'k, mailluarekin burni bat joka ari zela, burnia jo bearrean eskuko beatza jo ta zapal egin omen zun. Ikasleak miñez karraxi egiten zun artean, nagusia ere karraxika asi zitzaion:

—Trakets alena ez bestena. Zer egin duk? Ik eztuk sekula ofiziorik ikasiko, kankallu ez besten kankallu!

Ondoren, nola jo bear zun irakasten asi zitzaion. Arian, arian, ugazabak ere alako ba-



tean uts egin zun ta biatza malluarekin artu. Pernando'k, irri-parra ezpaiñetan ekiten dio maltzurki:

—Zuk ere jo duzu ba burnia eztana.

—Ago ixillik ! Ik ere, nagusia izatean, bea-tza ez-ezik burua apurtzea libre izanen duk.

## X

### A L A T S U !...

Gure Pernando'k, igandea etorri ezkeru, arrantzako kañabera aski zun zorion beteko gizona izateko. Orduak joan, orduak etorri, etzan erreka bazterretik edo itxas-egitik mugitzen arrairik alboratzen ezpa'zitziaion ere. Orra zergatik kañabera soil-soilki aski zun zorionekoa izateko. Arraiak etzun nunbait kañaberak ainbateko garrantzirik.

Egun batez, ibai bazterrean oi bezela arrantzan ari zela, egoki jantzitako gizaseme bat eldu zen ibai ertzeraño. Eztakit jaun au oartu ote zen gure Pernando an zanik. Danadala, etzion ez kaixorik, ez agurrik egin eta mundua beretzat txikitxo iruditurik nunbait, bere burua uretara bota zun, beste aldean emen baiño obeto bizi ustetan noski.

Pernando'k ordea, gizasemea itotzen ikusi dunean, murgil egin du uretara eta doi-doian bizirik atera.

Delako arrotzak aborik ere etzun zabaldu salbatzalleari eskerrak emateko eta kañabera artu zun orduko bere arloan jarraitzeko, gizasemeak berriz ere bere burua uretara. Berriz ere Pernando'k itozorian atera zun, baiñan arrotza etzen iñolaz ere bere buruari bizia kendu gabe gelditzekotan eta Pernando'k kañabera berriro artu orduko, arrotzak ostera ere murgil. Onela lau edo bost aldiz, gizasemeak murgil eta Pernando'k atera jolasean ari bailiran.

Alakoan, gizaseme urkabera (1), arrantzale petralak bizia kentzen uzten etziola ikusita, joan da auzoko zugaitz batera eta patrikatik soka bat aterata, adar batetik bere burua zintzilikatu du.

Gizasemeak ito-itoan mingaña kanpoan zularik, onela mintzatu zitzaion Pernando jarioitsu:

—Bapo, gizon! Noizpait egin duk zerbait zentzuzkoa. Gizajo ori blai-blai gelditu aiz uretan murgilduz eta arbol ortatik zintzilik segitun legortuko aiz. Izan ere, gure etxeko arropak alatsu legortzen dizkitek.

Eta Pernando'k berriz ere arrantzari ekin zion trankil asko, ito-zorian zegon gizajoa eguz-

---

(1) Propenso a ahorcarse.

kitan legortzen ari zalakoan bere etxeko maindiren (1) antzo.

## XI

### EZ GABEZ ETA EZ EGUNEZ.

Pernando zerbaiten aberatsa ba'zen, zorretan zen galanta. Gañerakoan, esku-utsagorik ez zazpi Euskalerrietan. Alare, sinisgaitz izanarren, gau erdi inguru batean Pernando'ren etxera lapurrak eldu ziran. Nora ta Pernando'renera !

Nunbait, lapur koxkor aiek apartekoak izan, Pernando gizajoaren berri etzekitenak, edo-ta berak asmo zuten zuzenbidea oker artu zutenak.

Dana-dala, Pernando'k, lotan zetzala, alboko gelan lapurrak somatu zitun kajoiak eta bazterrak arakatzen. Altxa zen oetik ixil-ixilik eta atea idekiz bi gizaseme nabaitu zitun linterna eskuan, argia piztutzen ausartzeke (2). Orduan Pernando'k, noiz-nai txinparta jario, onela agurtu zitun lapurrak :

—Illunean al-zabiltzate billa ? Ai, kottauak!

---

(1) izara.

(2) Atrebitu gabe.

Neuk egunez eztiat arkitzen eta zuek gabez?  
Orra, orra, Pernando, berak jakin gabe aberastu!

## XII

### DIRURIK EZ ETA BIARRIK EZ

Pernando'k gauza bat bakarrik zun gorroto munduan: lana! Ta alare, adiskide gogai-karri au ezin ostikoz bota bere albotik, eta iñoiz naigabe alde egiten zionean, bere billa asi bear, Petiri Santz (1) sabeleko zulotik ojuka asi baiño len.

Olako batean Eibar-Plaentxitan lana arkitu eziñik, Bergara'ra jo zun ango adiskide aberats batez gogoratuta.

Eibar'en eta Plazentzi'n lanari "biarra" esaten diote, Bergara'n berriz, Gipuzkoa'ko gañerakotan bezala, "lana".

Pernando'k bere Plaentxia'ko izkeran esan zion bere adiskideari:

—Emen nator ba, dirurik ez eta "biarrik" ere ez.

—Ni baiño obeto ago orduan, —erantzun zion bergararrak—. Nik asko ba-zeukat ere, geiago bear.

---

(1) Gosearen euskal-sinboloa.

### XIII

## PERNANDO OLLO BATEKIN AURREZ-AURRE

Pernando'k arrantzarako ez-ezik eizerakore izugarritzko griña zeukan. Eiztari odola aitagandik zekarren eta arrantzatzea ezpa'zan, jai-eguna etorrita norabaiteko martxa izaten zun eskopeta bizkarrean.

Gure aurrekoak eskopetari txispa esan oi zioten eta Bidaso'z bestaldeko gure anaiak ere oraiñaldian alatsu esan oi diote. Beraz, itz polit au erabiltzen oitu gaitezen gaurgero.

Beñola, txispa sorbaldan artu eta auzoko menditara jo zun goizean goizetik. Pernando gizajoak ziara ler egin zun jo batera, jo bestera, erreka-erreka, sasiz-sasi eta erpiñez-erpin eta etzun alerik ere eizatu. Nunbait, Mateo Txistu apaiz eiztaria igaroberri zen bere txakur-taldearekin eta ziranak oro berak eraman zitun.

Galtzak urratuta eta eskuak atzamarkaz beterik, Pernando'k etxerako bidea artu zun. Berriketarako baiño madarikazioka aritzeko gogoia obeto zekarren Pernando'k egun beltz artan.

Baserri atari batetik igarotzean, ollo paketsu bat nabaitu zun aurrez-aurre. Olloa, lepoa zutituta berari begira jarri zitzaion, sorbaldan zekarren txixpaz asaldatuta bezelaxe.

Pernando'ri, olloak axut zegiola (1) iruditu zitzaion burua tente-potente ikusi zunean eta egun antzuak bildu-erazi zion beazuna nunbait ustu-bearrez, txispa kargatu eta tiro batez garbitu zun. Bereala, olloa alperrik galtzea baiño alperrik jatea ohea izango zala-ta, Pernando'k egaztia eizeko sakelan sartu ta etxeruntz abiatu zen.

Alabaiña, sukaldeko leiotik norbaitek ikusi zun egaztia artu ta eramaten eta nor zen ezagutu ere bai, Pernando, Plaentxia ta auzotan ezaguna baitzan oso. Au dala-ta, biaramonean, baserriko etxeakoandrea Pernando'ren amari bitxitaz joan zaio:

—Barkatu, andrea, —diño baserritarrak errespetuz—, baiño bart, zure semeak gure etxe atarian ollo bat eskopetaz il eta besapian eraman zun.

—Bai ote? —Ekin zion amak geiegi arritu bage, amaika alako aitu bear baitzitun bere seme ajolakabeaz—. Zagoz pixkabat, etxean da eta bertantxe ots eginen diot.

Etorri zanean, amak galdetu zion:

—Egia al-duk atzo andre onen etxean ollo bat txixpaz il ukala?

—Bearko! —Erantzun zion Pernando'k—, “En defentsa propia” (2) gañera. Arro-arro

---

(1) Desafiyo egiten ziola.

(2) “Nere burua defendi bearrez”. Berak ordea itzauk erderaz esan zitun eta naiago izan dugu utzi.

eginda bidera atera ez zitzaidan ba eupadarik (1) lotsagabiena egiñaz? Bi tiro bota nizkion eta joan zitzaizkion, alajañetan, Pernando'ri aurrez egiteko gogoak.

Pernando trankil gelditu zen bere arrazoi mardularekin, baiñan amak, bidezkoa zanez, olloa ordaindu bear izan zion eta ziara lotsatuta barkatzeko otoi egin.

## XIV


### KONTRAKO INDARRA

Pernando ta Anttoni beren ezkon-txangoan (2) ain ez-titsu ezagutu bagenitun ere, etziran ezertan bat etortzen. Beti alkarri kontrakua eramane bear, naiz ta gauza batean iritze berberakoak izan.

Orra ba, beiñola, liskar (3) gogor baten ondoren, Anttoni etxetik zapuztuta erten bere burua ibaira bota bear zula esanaz.

Pernando'k utzi zion ertetzen txantxetan ari zalakoan, baiñan denbora puska bat barru ageri etzala ikusirik, kezkatuta ta damututa bere atzetik erten zen farola eskuan artuta, arrats illuna baitzen.

- 
- (1) Desafio.
  - (2) Viaje de bodas.
  - (3) Disputa.



*Andre billa*



Eldu zan ibaira eta ertze bati atxikirik, goruntz ekin zion. Ontan, goitik behera zetorren adiskide batekin oztopo egin zun eta onek galdegin zion Fernando'ri:

—Nora oa, Fernando?

—Andrea, bere burua ibaira bota bearrez antxintxika atera duk eta aren gorputz billa.

—Baiñan, gizon, urak gorputza behera eramanez dik eta ez gora (1).

—Bai zera! Ik eztuk ezagutzen nire andrea. Kontrakua eramatearren, bere gorputza urez gora joan dana ziur natxegok.

A ze bi, Fernando ta Anttoni!

## XV

### EMENGO TXARDINAK, ORKO ARRAULTZAK ETA ANGO... TXAKURRA

Len ere esanak gaituzu Fernando'ren patrika mardul baiño obeto egon oi zala zimel eta orok dakigunez, patrikak zimurraldi duanean, sabelak jai.

Igande-eguerditan, tabernak jendez leporaño egon oi diran garaian, gauzarik errezena

---

(1) Fernando urez gora baizijoan.

izan oi da, nagusiak begiz jo artean beñepein, zotz-jaki (1) batzuk artu, txuri edo txakolin batzuk edan eta belearena egitea.

Xoxik gabe zebillen jai batean asi zen ba tabernaz-taberna gure Pernando, emen moko ta an txurrut eta nagusia beste norabait begira somatzen zuenan jendea atendi eziñik, erbi-zakurrak baiño ariñago ospa egiten zun.

Edanak ordea eztu barkatzen eta luzaro bage Pernando'k berebiziko atxurra arrapatu zun.

Pernando gizajoak mozkor txarrak izan oi zitun, ardoak burura jo orduko goralarriak ematen baitzion. Jo zion ba goralarriak eta orma bazter batean bekokia kokatuta (2), nunbait ostutako txardiñak bota zitun. Begiak lauso-lauso eginda eta burua zurrunbilloka, lurrean zetzaten txardiñai begira jarri zen, esanaz:

—Txardiñok, urliaren ardandegian ostutakoak dituk.

Goralarria leundu zitzaionean jo zun aurrera batzutan zalantz eta bestetan balantz, jende guziaren parregarri. Eun metro aurrerago berriz ere goralarriak jo zion eta arrauzkiak bota zitun. Gizajoak, ziara zozotuta onelatsu zion zizaka:

---

(1) Banderilla.

(2) Reposar.

—Arrautzok, alakoren ardandegian ostu dizkiat.

Beste pixkabat lasaitu zanean beste eun metro egin zitun nora-ezean, eta azkenean berri ere gorakoak emanda eta batere igarri gabe, lukainka mutur bat bota zun abotik behera.

Albotik ba-zebilkion txakur goseti bat eta lukainka muturra jausi zitzaioneko, txakurrak oso-osorik irentsi zun. Gorako une gaiztoa igarro zitzaionean, Pernando'k zabaldu zitun begiak, baiñan, lurrean lukainka muturra ikusi bearrean, txakur gosetiaren muturra nabaitu zun, urrengo gorakoak zer opako ote zion noski, eta ziara arrituta onela ekin zion bere buruari:

—Arrano-arranoak! Eztuk sinisgarri baiña, txakur au ere nunbait jan diat nik!

Pernando'k, oinbesteko ustualdiaren ondoren gorputza askoz obeto nabaitu omen zun eta igarotako estuasunak ahaztuta bazkaltzera joan zen.

## XVI

### ORI DUK ARRAZOIA

Beiñola, Pernando, Eibartar batekin zen bazkaritan.

Zopa ta eltzekoa artu zituzten eta ondoren txuletak piparrakin atera zizkien. Txuletak ordea, gizon-motikoak ziruditen, bata egundaño-koa baitzen eta bestea berriz kaxkar tankera-koa. Pernando'k, unerik galdu bage txuleta aundia bere plateran ipiñi zun. Orduan, eibartarrak onela ekin zion suminduta Pernando'ri:

—Edukaziño ederra irea, Pernando!

—Ik zer egingo ukek ba? —erantzun zion plaentxiatarrak parraskiro.

—Nik? Txikia artu.

—Or duk ba. Jan da pakia eman.

Pernando'k etzun buruauste gogorrik ibilli bere jokabidea zuritzen.

## XVII

### EIBAR TA PLAENTXIA

Auzoak alkarren inbiritan bizi dirala esan liteke. Alaxe, Eibartarren artean esaera da, “Plaentxia munduaren ipurdiko zuloa”.

Alabaiña, plaentxiarrak diñoenez, industria langintza Plaentxia'n sortu omen zen lenen-goz eta emendik Eibar'era zabaldu.

Dana-dala San Juanetan, Eibar'ko festetan alegia, ba-zen erri ontan algara ta zurruta suel-

to. Pernando'k etzun alakorik galtzen eta San-juanak ospatzera joan zen eibartarren lepotik zaunk eta zurrut egiteko gertu.

Ba-zebillen gure Pernando zabu-zabuka eibartar aldra batekin eta plaentxiatarra ta eibartarrak berotu ziran, bakoitzak bere erriari egiñaz goraipamen eta auzoari ondamen. Alakoan, Eibartar batek, adarra jotzearren onela ekin zion Pernando'ri:

—Nola nai duk Plaentxia Eibar beste iza-tea, munduaren ipurdiko zuloa ba'duk?

—Plaentxia ipurdiko zuloa ba'duk, —erantzun Pernando'k algaratsu—, Eibar kaka, Plaentxia'tik urten uan-da!

## XVIII

### JOXE MARTIN'EN ILBERRIA

Pernando'k nekez egiten zun aldi luzerik lanean nagusi berberarekin. Bitako bat gertatzen baitzan beti: Pernando nagusiarekin aspertu (nagusi aitzekian, Pernando jaio ezkeroz lanarekin baizegon asarre) edo nagusia Pernando'rekin. Au ere ezta arritzekoa, nagusiak ezpaitzun askorik xurgatuko Pernando'ren lanetik. Baiñan, ona nola, Pernando'k mesede galanta egin zion ugazaba bati.

Obra batean peoi asi zen. Andamio batean Joxe-Martin izeneko igeltzero batek ziardun lanean. Bearrik, Pernando'k etzun andamioan oñik jartzen, au egun batean bera erori baitzan eta Joxe-Martin'en ezur-mamiak txe-txe egin da gelditu ziran.

Joxe Martin gizajoa ezkondua zen eta bere nagusi ta lankideak ezin asmatu zuten nola aditzera eman bere alarguntsari alako berri samina.

Izan ere, ezpaitzen inorentzat lanbide samurra alako eriotz baten berri bere alarguntsari eman bearra.

Bat-batean, nagusia Pernando'z gogorazen, bai-baitzekin lanerako alper bezain buruz argi zela. Beraz, ugazabak, ots-egin eta onela esan zion:

—Entzun, Pernando. Joxe Martin gizajoa-ren emazteari nolabait-edo bere senarraren ilberria eman bear ziokegu. Eztuk arazo atsegiña, baiñan, jakinerazi beste alderdirik etzegok. I, iztun trebea aiz eta asmatuko duk noski alarguntsari leun-leun aditzera emateko izketa modu bat.

—Bai jauna, bai, —erantzun zion Pernando'k nagusiak ain oparo aitortzen zion gaitasunaz ziara puztuta—, ez orren kezkarik izan. Ori, lanean aritzea baiño errezagoa da. Orra: senarra il zaionik ere aitatu gabe, alarguntsa dela aditzera emanen diot.

—Egik ba orrela edo derizkioken bezala,  
—erantzun zion ugazabak apurtxo bat lasatu-  
ta—, niretzako estuasun aundia ukek eta.

Birritan esan gabe, Pernando'k utzi zion lanari eta an joan zen Joxe Martin'en alarguntsari bere senarraren ilberria ematera. Atea jo ta andratxo gazte bat agertu zitzaion.

Pernando'k:

—Zu al-zaitut Joxe Martin'en emaztea?

—Bai, ni nauzu. Zer nai zenuke?

—Joxe Martin'en ugazabak igorri nau zuri enkargutxo bat emateko.

—Zerorrek esango duzu. —Erantzun zion alarguntsak ezer txarrik igarri gabe.

—Orra ba; zure Joxe Martin'i txamarra andamiotik behera erori omen zaio.

—Ori al-da guzia? Ortarako nire etxeraño bialdu bearrik etziñun.

—Bai, baiño, beste zertxobait ere ba-da, etxeakoandre: Joxe Martiñ'ek txamarra soñian zeraman.

Eztakit, Joxe Martin'en alarguntsak nola artu ote zun bere senarraren ilberria, baiñan gure Pernando'k nagusiari agindutakoa pin bete zunik ez dezakegu ukatu.

## XIX

### PERNANDO'REN AITA

Danok dakizutenez, Pernando ezkondua zen eta bi seme-alaba eder ere izan zitun gutxieneko.

Ezkontzerakoan, apaizak itandu zion dotriña ba'ote zekin.

—Bai jauna, —erantzun zion Pernando'k irmo ta sendo.

—Jaungoikoa'ren legeko agindutan gogor al-ago?

—Bai jauna, —Pernando'k berriz ere.

—Jaungoikoa ire aita al-duk? —Ekin zion apaizak urrena.

—Obe bai nire aita jaungoiko ba'litz. Ondikotz! (1) langille triste bat besterik ezta.

## XX

### GOSE T'ERDI

Mateo Txistu'k (2) odolean ezarri zien eibartarrai eizerako griña. Mendiz-mendi zoazela

---

(1) Zorigaitzez.

(2) Eiztariaren, Kazariaren euskal-sinboloa.



nun-nai topatuko dituzu eibartar eiztariak eta ez Gipuzkoa'ko ta Bizkai'ko bazterretan baka-  
rrik, baita Errioxa'ko eta Burgos'ko mendi-  
-zelaietan ere.

Beiñola, egun guztia mendiz-mendi ibilli ta gero eizaren usaiñean eibartar eiztari bat, Plazentzi'ra jatxi omen zen azkeneko trenean etxeratzeke asmotan.

Trenerako oraindik goiztxo zula-ta, bere erbi-zakurrarekin taberna batean sartu zen, mendira eramandako janari kondarrekin eta porroi bat ardorekin denbora pasatzeko uste-tan.

Erbi-zakurra, gorputza euritan blai, belarriak zimel, begiak trixte eta ezur zorrotzak nun-nai bixtan, pena eragingarri zegon bene-tan.

Alboko aldra batetik, Pernando, zakur goseari errukiz begira zegon eta bere inguruan zitun plaentxiatarrai begira onela dasaie (1):

—Motellek! Zakur orrek gosea obeto zeu-kak asea baiño.

Au entzun orduko, eibartarrak ziara su-minduta onela ekiten dio:

—Nire zakurra goseak? Gezurra duk! Eta enaiz berriketan ari. Jaurtiazute jateko zer-bait eta ikutu ezetz.

Plaentxiar batek, eibartarraren axutari (2)

---

(1) Esaten die.

(2) Desafio.

erantzunaz, ogi puska bat jarri zion zakurrari muturraren aurrean. Zakurra urreratu zen, koskorrari usain egin zion eta besterik gabe bazterrean utzi zun.

—Ikusten al-duzute? Ikusten nire zakurra goseak eztagona?

Baiñan, Pernando'k, irri-karkara artean onela dasaio eiztari erreberari:

—Baiñan, gizona! Oraindik ere goseak eztagona esango duk? Ots, mutillak! Ogiari usain egin zioke eta jatekoa danik ere igarri ez. Egundño ogirik ikusi ez eta ez omen zegok goseak. To, mutillak, bapo zegok!

Plaentxiarrak ler gaizto egin zuten beren erritarraren ateraldiarekin, baiñan, eibartar eiztari minberak etzun aintzakotzat artu nai izan plaentxiatarren umorea eta ke jario bere erriruntz atera zen.

## XXI

### EMAN AHAL BA'LITU!

Ba-zijoan bein Pernando kalez-kale ta us-te-ezean aspaldi ikusi gabeko lagun zahar batekin topo egin zun. Aurreneko kaixoak ta olesak egin ondoren, adiskide zaharrak esan zion Pernando'ri:

—Onezkero i ere urtetan aurrea oa, Pernando.

—Bai, gizona, berrogeitamabost oraintxe bete.

—Ene! Eztuk ematen ba.

—Ez, eman ahal ba'nitu, ez nituzke euki-ko.

## XXII

### EUTSI! EUTSI!

Pernando'k ondo bazkaldu zun batean, akeitarekin Martell kopa bat eskatu zun. Pernando'rentzat etzan jostaketa koñak ontako kopa bat irestea, bost ogerleko (1) kentzen baitute kopako, au da, Pernando'ren egun osoko lan-saria. Egun aundi ari luzapena eman nairik, (auskalo urrengo noiz atxemango zun), arratsalde erdi bat Martellaren gozoa xurga ta xurga igaro zun.

Luzaro gabe, gure Pernando asi zen oika ta aika, sabelari gogor atxikiz oñazeak itoko bailuan. Alboko batek itandu zion:

—Baiñan, zer duk Pernando, zer gertatzen zaik?

---

(1) Duro.

—Nik daukat txixalarria, mutillak!  
—Lelua i! Ua komunera ta ezak pake.  
—Ez olakorik, mutillak. Bein bost ogerle-  
ko pagatu ezkeru Martell kopia, eutsi al dan  
guztian!

## XXIII

### KEN AKIT!...

Beñola, Plaentxia'ko auzo-erri batean jaiak zirala-ta, aruntz abia ziran Pernando ta bere adiskide on batzuk.

Arratsaldeak labur jo zien nunbait, illuntzean ezpaizuten etxerako gogo aundirik eta biaramona ere festa egun zanez, bertan lo egi-tea pentsatu zuten.

Gau ostatuaren eskea egin zuten, baiñan, olako jende pillatzetan sarri gertatu oi danez, oerik ezin osatu zuten.

Zotz egin zuten aldrakoak eta Pernando'ri Antton zeritzan batekin tokatu zitzaion lo egin-bearra. Pernando ordea, eroso-naia izaki iñun eroso zalerik ba'da eta etzun gogoz artu bere ogearen erdibanatzea.

Nola edo ala, oe osoaren jabe egin nai. Nai izatea berriz, ahal izatea omen da eta orra. Pernando'ren naiak ekarri zion ahala.

Antton ta biak lotaratu aurretixe, Pernando'k jaso zitun oe-estalkiak eta arreta aundiz, bere lagunak ondo ikus zezan, albistari (1) bat zabaldu zun maindire gaiñean. Oekideak, Antton'ek alegia, ziaro arrituta galdegin zion:

—Baiñan, gizona, zertarako jarri duk albistari ori oatzean zabal-zabal?

—Orra Antton. Biok ere lagun zaharrak gaituk eta edozeñi esaten lotsatu egiten ba'nauk ere, iri esango diat.

—Nirekin beintzat ez lotsik ibilli, Pernando.

—Esan nai nitek, baiñan, etzekiat nola asi.

—Lota agola eguneko albistek (2) irakurtzeko eztuk izango noski.

—Ez gizona! Orrek ez likek aitortzeko lotsakizunik.

—Zer duk ba, Pernando! Esaidak lotsaren izpirik gabe, bai-baitakik ni gizon ulerkorra naizena.

—Orra ba, egia esan. Bein loak artu ezkeru, barrengo estuasunari ezin neurrik artu ziokat.

—Baiñan, ezin al-diok eutsi ire larriari komuneraño joan artean bederen?

—Bai zera! Ametsetan asi orduko goxogoxo ateratzen zaidak iñolako estuasunik ga-

---

(1) Periódico, revista.

(2) Noticias.

be; eta luzaro gabe, orratx!... dana kakaztuta esnatzen nauk. Nire zorigaitza!

—Bai, eztuk gauza atsegingarria, ez iretzako eta are gutxiago irekin lo egin bear du-narentzako.

—Bai, bai, ulertzen diat, ala duk. —Ekin zion Pernando'k alik eta arpegirik kertenena jarrita.

—Lurrean lo egitea latza baldin ba'duk ere, —jarraitu zion lagunak umore txarrez—, irekin lotaratzea baiño atsegingarriagoa izan-go duk. Ba-natxiak, beraz, bazter baten billa.

—Ik ala naiago ba'duk... —Ekin zion be-rriro Pernando'k ergel-antzo.

Arrats artan Pernando'k sekulako gaugiroa bota omen zun, bere zorioneko zurrunkak auzoak esnatu bearrez. Antton gizajoak berriz, naiko lan izan zun bere buruari lo ar-erazten. Lurrean zetzala makiña bat mugida egin zitun noski bere ezur minberak gozatu-erazteko. Al-perrik baiña! Goizeko seiëtarako kalean zen os-tera, Pernando kakalearen inbiri gorritan.

Antton'ek goiz artan jakin izan ba'lu Per-nando'k lotarako erabilli zun anterea (1), a ze baldekadak artu bear zituan urez gure adar-jotzalle ajolakabeak. Zurrunken ordez mar-ruak entzungo ziran noski auzotan!

---

(1) Treta, ardid.

## XXIV

### EGUNDOKO ZULOA

Beste bein, Fernando, zapatak eroatera joan zen. Gure plaentxiarrak jai-egunetarako zitun galtzerdi bakarrak garbitzen edo zitun eta zapatak galtzerdi barik probatu zitun. Zapata-riari grazia egin zion nunbait, onela mintzatu baizitzaion Fernando'ri:

—Oiek, amak egindako galtzerdiok (1), etzaizkik sekula zulatuko.

—Etzekiak bada, galtzontzilloak ere era ortakoak zeuzkat eta alare erdi-aldean egundoko zuloa zeukatek.

## XXV

### PERNANDO PIKUTAN

Pernando, umetatik izan zen biurri-xamarrara ta ajolakabea, baiñan, baita ere biotz oneko. Jaungoikoak buru argi baten jabe egin zun, baiñan etzion eman lanerako doarik eta bere buru artega beti zebillen bazterrak nola nahastuko.

Beiñola, mutikotan, gau illun batez pikuak

---

(1) Galtzerdi = Galtza eta galtza = praka. Bijoia oar au Eibartar eta Plazentziatarrentzat.

ostutzera joan zen Koldo zeritzan bere lagun batekin auzoko baratz batera. Koldo zugaitzera igo zen eta onek Pernando'ri botatzen zizkion otar batean biltzeko.

Pernando ordea etzegon lo ta Koldo'k bi piku botatzen ba'zizkion, Pernando'k bat aborra eramane oi zun, goikoak ere beste ainbeste egingo zun ustean. Lapurrai katuarena gertatzen baizaie: buztana luze eta berak bezala besteak uste.

Ontan, Koldo'k botatako piku bat jaten ari dela, Pernando'k, karrask!, ezurra topatu du mami tartean. Gau illun artan piku orde, ez ote zun besterik aboratu Pernando'k?

Ziara ikaratuta galdegin zion Koldo'ri:

—I, Koldo, pikua ezurrik ba'al-dik?

—Pikua ezurra? —Erantzun zion goitik lagunak—, Burutik egin al-zait?

—Ene! —Ekin zion Pernando'k larri-larri—. Orduan, zapua jan diat!

## XXVI

### GOGOKO TOKIAN ALDAPIK EZ

Jai bazkalondo batean Joxe-Martin'ek Pernando'ren etxeko aldaba jo zun eta oju egin zion:



—Ba'al-ator bezperetara, Fernando!

—Ezin, Joxe Martin, ezin, —erantzun zion Fernando'k goitik—, bart zapatak konpontzera eraman nizkikan da.

—Orra, ezpa'ator, Bolia'neko tabernara natxiak denbora pasa.

—Ago, ago, —ekin zion orduan Fernando'k—, emaztearen zapatak jantzi ta irekin niak!

## XXVII

### ARRAIN-OGIEN UGALTZEA DALA-TA...

Zelebrea jazo (1) zen Eibar inguruko auzogune batean.

Ipui sail ontan eztago gezurrezkorik, irakurle, banaka batzutan ala ba'deritzazu ere. Danak dira gertatuak, oraingoa barne, eta neri konta bezala jakinerazten dizut zuri, irakurle, naiz-ta, gazitu ustean, sarritan, gezaturik jakinerazi. Ipuiñok beraz, ixtorio txipiak dituzu, gaurko Euskalerria'ren sormenetik ialkitzen (2) ari zaigun folklore berria, eta antziñako ipuin ta elezaharrak (3) jakingarriago ba'zaizkigu ere

---

(1) Agitu, gertatu.

(2) Desprenderse.

(3) Cuentos y leyendas.

euskal-izanaren ezaugarri, ixtori berriok etzaizkigu batere baztergarri euskal-sena gaurkotasunean ezagutu nai ba'dugu. Asi gaitezan bada, ipui onen ari-mataza askatzen.

Ba-da Eibar'tik urbil ermita bat sonatua euskaldunentzat. Baseliz ontan, jaiero beñe-pein, meza donea eman oi da eta dotore gaiñera, sermoirik ezpaita sekula paltatzen.

Beiñola, gure Pernando, auzogune artan gertatu zen mezetan. Apaiza, ebanjelio ostean meza etenda, pulpitora igo eta igande ari zegokion Berri Ona aldarrikatzen (1) asi zen, arrain-ogien ugaltze entzutetsua ain zuzen ere. Apaizak berotuta ziardun Jesukristo Gure Jaunaren mirari bikaiña aundietsi nairik eta itzak arrapaladan ertetzen zitzaizkion biotzak jaurti ala, buruari neurtzeko astirik eman gabe. Sermoiaren unerik garaienera eldu zanean, zorigaiztoko itz-nahaste au sortu zen bere mingaiñean:

...“Bai, kristau maiteak, Jesukristo Gure Jaunak bost milla ogi eta bi milla arraiñekin bost gizon janaritu zitun emakume ta aurriz gaiñera eta oraindik ere, enparauakin, amabi saski bete zituzten kondarrez”.

Au esanda, apaizak arnasaldi bat artu zun. Jende guziak igarri zion Ebanjelio'ko itzak alderantziz esan zitula. Batzuk, irri edo kiñu

---

(1) Ebanjelioa predikatzen.

batzuk egin zioten alkarri, baiñan Pernando'k etzun orrenbestean amor eman eta edonori txixareak berotzeko irrikatzen egon oi zanez, etzun une eder ura galtzen utzi nai. Beraz, apaizak arestian aipatutako arnasaldia artu zunean, ekin zion behetik gora :

—Ori neuk ere egingo nuke, apaiz jauna !

Entzuleak, parrari ezin eutsirik ler gaizto egin zuten. Apaizak berealaxe igarri zion bere utsegiteari eta egun artan lotsa-lotsa eginda jexi bear izan zun pulpitotik.

Igande artako urte-urrenean, Pernando eliz artan zen berriz ere ebanjelio berberaren lepotik apaizari adarra jotzeko gertu. Apaizak ekin zion igandeko Berri Onari Pernando an egon zitekenik ere gogoratu gabe. Lengo itz garaietara eldu aurretixe ordea, koruko bazter batean somatzen du gure plaentxiatarra eta berari begira jarrita onela ekin zion itzak ongi bereiziz :

...—“Bai, kristau maiteak, Jesukristo Gure Jaunak BOST OGI ta BI ARRAIÑEKIN, BOST MILLA GIZON janaritu zitun emakume ta aurras gaiñera, eta oraindik ere, enparauakin, amabi saski bete zituzten kondarrez”.

Apaizak, oraingoz ere arnasaldi luze bat artu zun itz oek aundikiro esanda. Pernando'k laister igarri zion itz lodi aiek eta arnasaldi anpatsu (1) ura beretzakoak zirala eta iñork itxoi-

---

(1) Rebosante de satisfacción, esate baterako.

ten etzularik, onela erantzun zion Fernando'k apaizaren jeupadari:

—Ori neuk ere egingo nuke, apaiz jauna!

Apaiza arri ta zur (1) gelditu zen gure Fernando'ren ausarkeriaz, ezpaitzun uste, gure plaentxiarrak, gizon argia izanarren, mirariak egiteko doaia izango zunik Jaungoikoa'gandik. Orduan, apaizak, bere leikidea (2) zapaldu us-tetan onela eraso zion:

—Bost ogiz eta bi arraiñez bost milla gizon janaritu, ik?

—Bai jauna, ta aixa gaiñera.

—Azaldu zak ba nola.

—Nola? Igazko sobranteakin, apaiz jauna!

Egun artako mezetan parrerik egiteke irauun zunak, zerua ongi irabazia zeukan noski!

## XXVIII

### GAITZ ERDI

Gure Euskalerrria'n, pertsonak ez-ezik, erri bateko semeak ere sarritan gaitzizena izan oi dute. Alaxe, Oñatiarrak txantxikuak dira, Oriotarrak ijituak, Donostiarrak kaxkariñak,

---

(1) Pasmado.

(2) Contricante.

Amezketarrak euliak, Azkoitiarrak sakelak, Alegitarrak txintzarriak eta Elgoibartarrak zapuak.

Beiñola, taberna batean, Pernando'k sekulako beroaldia izan zun elgoibartar batekin. Au, indarretan gogorragoa zen eta Pernando gizajoa ebain-ebain eginda utzi zun.

Elgoibartarrak alde egin zunean, Pernando'ri onela ekin zion adiskide batek:

—Ederra eman dik, Pernando.

—Bai berak aitu ere, —erantzun zion Pernando'k.

—Zer esan diok ba?

—Zapua! Zapua!

—Eta ori esanda ez al-au ito?

—Ara, garbi esango diat: ardanegitik atera ta aurreneko kale kantoian ezkututzen ikusi dutanean esan ziokat barru-barrutikan *zapua*. Gaitz erdi entzun ez dunean, ezpaituk bera albotik txuliatzen ibiltzeko zezena. Nire ezurrak lekuko!

## XXIX

### BAKOITZEKO BOSTEUN

Pernando lan bage gelditu zen batean, maleteru asi zen Eibar'ko estaziñoan. Ara-ona-

ka dabiltzan tren batetik jatxi zen beiñola karmelita bat bi maleta aundi karriatu eziñik.

Pernando'k bati eldu zion eta besteari Kalagorritar maleteru erdaldun batek.

Joan dira irurak karmelita komenturaño eta prailleak euskeraz "Milla esker" esan da besterik gabe kalean utzi zitun.

Kalagorritarra Eibar'era etorri berria zen eta etzun ulertu prailleak esan ziena eta orre-xegatik itandu zion Pernando'ri:

—Que dice? (1).

Ta Pernando'k:

—A cada quinientas (2), seme!

### XXX

#### ORRA KANBIOAK!...

Pernando, askotan oi bezala, igande arratsalde batez Eibar'era joan zen eta bein ara ezkeru, au zala ta ura zala, nekez atera oi zen errialdera arratseko amabiak jo bage.

Oraingoan ere amabiak jota ziran etxe aldera mugitu zaneke. Azkeneko tabernatik atera orduko pixalarritu zen ziara gure gizona eta

---

(1) Zer diño?

(2) Bakoitzeko bostenn.

Eibar'ko kaleak utsik zegozen ezkerro, orma bazter batera joan eta zar-zar egiten asi zen iñork ikusten etzulakoan.

Serenu bat ordea jarraika zetorkion aspal-ditxoan, bera oartu ezpa-zen ere, eta bizkarreko ikutu bat egiñaz onela zion Pernando'ri:

—Amar errialeko multia orma bazterrean pixa egiteagatik.

Serenuak multiaren papera egin dio eta Pernando'k ogerleko bat ematen. Serenuak ordea ogerlekoaren (1) kanbiorik ez.

—Ajolik ezpa'zaitzu, —esaten dio orduan Pernando'ri—, goazen apurtxo bat kalez-kale eta lenengo gizasemeari eskatuko dizkiogu.

Ortaratu zen Pernando ezinbestean eta bost minutu nora-ezean ibilli ondoren, bixtatu zun urruti antxean “Milord” esan oi zioten adiskide zahar bat. Pernando txispatu xamarrik zegon eta Milord balantzaka somatu zunean, onela oju egin zion:

—I, Milord, ator oneraño, ire bearrean gaituk eta.

—Zer nai duk?

Pernando'k itz bitan konta zion multia-rena eta kanbiorik ezarena.

—Orra ba, Pernando, —erantzun zion Milord'ek—, min diat ezin lagundua, baiñan, azkeneko xoxak zabalik arkitu diatan azkeneko tabernan utzi dizkiat.

---

(1) Ogei errialekoa, bost pestakoa, duroa.

Bat batean Pernando'k:

—Xoxik ezpa'duk ere, pixalarria izanenduk orratik!

—Bai, ta galanta gañera! Ain zuzen ere ezin aguanta nentorreken.

—Egin zak ba lasai. Nire ogerleko gaixoa ezetik geiago soltatuko olagarro onek, bai, ta joan bear ba'dik, bere lana aurretik eginda dijoala.

Multarik ordaindu bear etzula aditu zun orduko, Milord asi zen bere ustualdia egiten serenuaren aurrean. Au abo zabalik gelditu zen, baiñan Pernando'k esan zion:

—Egidazu beste papertxo baten mesede, serenu jauna.

Pernando gizajoak gau artan dirutan galdu zuna lotan irabazi zun.

## XXXI

### ARRAIN DIRUZALEAK

Lenago ere esanak gaituzu, Pernando, tabernarako ez-ezik, arrantzarako ta eizerako (1) amorratua zela. Beiñola, joan zen ba kañabera artuta erreka bazter batera. Zomorro ta txitxa-

---

(1) Kaza ta peska. Oar au Bizkai'ko euskerea egiten dutenentzat.



re mota guziak jarri zitun amuan, baiñan batek ere etzun pikatu asmorik egun ortan. Nunbait, bolara bateko ase ziran.

Amorratu zen gure Pernando alperrikako egoniam eta arraiñen egoskorkeria litxarkeri etsituz, atera du errialeko bat patrikatik eta uretara jaurtiz onela dasaie (1) bere onetik aterata :

—Torizue errialekua, bai, ta erosi nai duzuen!

## XXXII

### ILLARGIA ALA EGUZKIA?

Pernando, jai arratsalde batean Elgoibar' era joan zen denbora pasa. Berebiziko "atxurra" arrapatu zun eta azkeneko trena galduta ttapa-ttapa, etxe aldera abiatu zen.


Elgoibar'tik atera ta laister, oi bezala gauerdia zaharretan, beste bi mozkor billatu zitun bide ertzean. Bi-biak, zozoak bezala ozkarbian ditziratzen zun illargi beteari begira zegozen eta onela ziarduten eztabaidan :

—Ori eguzkia duk !

—Ezetz gizona, illargia dela !

---

(1) Esaten die.



—Enetxuak, ni Plaentxiatarra naiz ta eztakit emengo berri.

Baietz ta ezetz, bakoitzak bere buruari arrazoi. Ontan, Pernando albotik igaro zen eta bitako batek onela ekin zion:

—Barkatu lagun zaharra, baiñan eztabaidan diardugu or goian ageri den buruzuri ori eguzkia ala illargia ote den. Ik zer derizkiok?

Pernando jarri zen illargiari begira eta apur batean orrela egonda gero berari ere duda egin zitzaion gau-amandrea ala egun amandrea ote goitik begira zutena eta erabaki bat eman bearrez, onela erantzun zien:

—Enetxuak, ni plaentxiarra naiz ta ezta-  
kit emengo berri.

### XXXIII

#### LUMATU BERRI

Pernando'ren etxean no zen to (1), karraixitan beintzat eta batzuk diñotenez kolpetan ere bai. Etxean Pernando'ren andreak nai zuna egiten zen eta orretxegatik, andrearekin eztabaidan aritzeak ezpaitzun balio, lanetik kanporako orduak tabernan egin oi zitun. Doi-doi otordutan agertu oi zen etxean, andreak bazkaririk jarri ote zion ikusteko... Baiñan, an-

---

(1) Andrea zen gizon, andreak zeukan alkate makilla.

dre gaixoak ere ixillu gorriak ikusten zitun otorduak prestatzeko, Pernando'k larunbateko lan-saria ia osorik gastatzen baizion taberna-zulotan. Onetxegatik, larunbatetan, bere senarra lanetik atera garaian lantegiko atean egon oi zen diruak prexko-prexkoan jasotzeko.

Larunbata batean Anttoni'ri berandutu egin zitzaion eta bera lantegira eldu zaneke senarra anka egiña zegoen.

Andre gaixoa joan zen antxintxika bere senarrak oi zun taberna-zulora eta mai baten inguruan ikusi zitun Pernando ta bere lagunak porroi bat erdian jarrita musean ari ta ari. Orduan, Anttoni'k ate iskiñetik ojuka:

—Ollua letxe (1) lumatuko aut, Pernando !  
Pernando'k trankil:

—Berandu abil andratxoa, lagunak oraintxen lumatu natxioten-da.

Aste artako bazkari-apariak ere or nunbait ibilliko ziran !

## XXXIV

### IRUGARREN BATAIOA

Pernando'k, bere seme-alaben bataio gutitan ba-zun zer asmatua.

---

(1) "Bezelaxe" bizkai-euskerean. Esanaren indarra motelduko litzake gipuzkeraz jarrita.

Plaentxia'n eta inguruetan gizasemerik geinai gaitz-izena eraxten die ta sarritan, jendeak, izenaz baiño gaitz-izenaz obeto ezagutzen ditu alakuok.

Pernando'k irugarren semea izan zunean bataiatzera eraman zun eta apaizak galdetu zion:

—Ta zer izen ipiñi bear diozute?

—Izena? —Erantzun zion Pernando'k—, Ipiñiko diote, jauna, ipiñiko diote.

## XXXV

### NOR OTE?

Jai-arratsaldea Elgoibar'en igaro ondoren, Pernando, berebiziko makatzarekin joan zen estaziñora. Aurrena eldu zen trena Pullmana izan zen eta ez txartelik eta ez dirurik, primerako kotxean sartu zen.

Exeri zen butaka eder batean eta aurrez-aurre zeukan ispillu bati begira gelditu zen. Zeatzago jardunaz, ispilluan ageri zen giza-irudiari.

Irudia berea zen, baiñan Pernando giza-joak ezin antz eman zion nor zitekean arpegi ura. Ardoak ematen zizkion Pernando'ri alako lanak!

—Nun edo nun ikusi diat bada nik tipo ori, baiñan ezin nauk jausi.

Baiñan, ez bat eta ez bi ardoak zorioneko argi zion buruan.

—Bai gizona! Gaur goizean pelukerian illea moztutzen ari intzala berau uan aurrez-aurre!

Eta atsegiñez puzturik loak ziara menderatu zun. Biaramon goizean Atxuri'ko estaziñoan esnatu omen zen.

## XXXVI

### BOLO BOLUA!...

Onela oju egin oi zen gure Euskalerrri'ko erri koxkorretan aurren bataio egunez, eltxuan gorderiko txanpon guziak aidian botiaz neska-mutikoen pozgarri. Pernando'k, leporaño zorretan egonarren, arrapaladan bota zitun txanponak, bere semearen jaiotzak merezi baitzun aundikiro ospatzea.

Izenarekin ibilli zitun ordea komeriak. Apaizari garbi asko agertu zion bere gogoia:

—Orra, apaiz jauna, mutiko eder eta sendoa jaio dan ezkeroz, "Tigre" izena jartzea pentsatu dugu.

—“Tigre”? —ekin zion apaizak izututa—, Izen ori ezin ipiñi liteke gizona, olako santurik ezpaitago zeruan.

—Ezin litekela?

—Ez noski. Basapizti baten izena jarriko diok ba erorren aurrari?

Apaiz jauna, ez neri olako berriketakin etorri. Oraindik ezta amabostaldi bat gure auzokoaren aurrari “Leon” izena ipiñi zeniola eta leoiak ez dira noski katamotzak baiño samurragoak.

Apaizak esplikatu nai izan zion Leon santu izena zela ta abar, baiñan Pernando’k etzun ezertxore aditu nai eta onela ekin zion apaizari:

—Gure motikoak “Tigre” bearko du ba, ezpaita iñolaz ere auzokoa baiño gutxiago. Beraz, gaurko bataio-saria jaso nai ba’duzu nire semearen izena “Tigre” izanen da.

—“Ta irea berriz Asto”, —pentsatu omen zun apaizak bere baitan.

Bigarrena alaba izan zuten Anttoni’k eta Pernando’k. Izen bat ipiñi bear eta berriz ere sortu zen eztabaida ta ez nolanaikoa. Orainguan emakumiakin zun izatekua. Pernando’k Monika jarri nai zion izena, bere ama zena ala baitzan, eta Anttoni’reñ sendikuak (1) berriz Pilar, amaren aldetikakako amonaren izena.

---

(1) Familikuak.

Elizara eraman zuten aurra eta iñork etzion amor ematen bere setari. Bi alderdiak ziran egoskorrak eta bakoitzak il artean eutsiko zion bereari.

Euren arteko auziaren jakitun egin zuten apaiz jauna eta onen esanera makurtzekotan gelditu ziran, alderdi batekoa ez aukeratzekotan beñepein.

Apaizak parrari ekin zion auziaren berri jakin zunean.

—Zuek darabilkizuten korapilloa erreza da askatzen.

Danok ere txundituta gelditu ziran itz oek entzunda. Iñork amor emateke ote zen ordea?, zioten berekiko bi alderdiak.

—Ara—, jarraitu zun apaizak, —aitaren alderdikoak Monika jartzea nai duzute, ezta?

—Bai, jauna. —Erantzun zuten orok abots-batez.

—Amarenekoak berriz, Pilar. Ez al da ala?

—Bai jauna, bai.

—Orra ba. Zuen alabaren izena Pilar-Monika izango da ta ortara danok kontent.

—Pillarmonika! Izan ere, orixen da izen moñoñua, —ekin zion emakumetako batek—, eta guri gogoratu ez!

—Arrazoi duzu, apaiz jauna, —ekin zion berriz Fernando'k—. Lenago Tigre eta orain Pillarmonika, etxean jarriko dugu pesta polita.



Eta aurra bataiatu ondoren, Salomon jakintsuaren erabakiarekin baiño kontentuago etxeratu ziran bi alderdiak.

## XXXVII

### ZINEAN

Egun batean, Pillarmonika gaixoak esan zion bere aitari:

—Aita, jaiean Eibar'ko Koliseo'ra joan bear zenduke, Santa Teresita'ren bizitza ematen dute-ta. Negar eragitekua da, baiñan atsegin izango zaitzu.

—Negar zineko irudiai begira? —Ekin zion Pernando'k—. Egon lasai, alabatxoa, negar baiño parre obeto egingo dut eta.

Joan zen ba igandean Koliseo'ra bere alabaren eskariz eta zine guztia andrazkoaz josita idoro zun. Gizonezkoak bakan batzuk an-emenka eta aurrak berriz saldoka. Exerlekua numeratuta zeukan eta andre bat eskubitik eta bestea ezkerretik egokitu zitzaizkion.

Pelikula erdia baiño len, bere alboko andre bat, musu-zapia atera ta negar-zotinka asi

zen Santa Teresita'ri begira jarrita. Pernando'k orduan :

—Senideren bat al-duzu? —Ekin zion gozatuta.

## XXXVIII

### R. I. P.

Pernando, anima-egunez, joan omen zen txintxo-txintxo kanposantura bere andre ta aurrari lagunduz.

Beren aide ta adiskideen aldeko errezuak amaitu zituztenean, andrearekin berriketan ziardun artean, Pernando'k, atera zizun zigarro bat eta asi zen kea urrupatzen.

Andreak, ziara suminduta esan zion :

—Baiñan, Pernando, au eztuk erretzeko tokia !

Pernando'k, itzetik ortzera onela erantzun zion andreari :

—Baiñan, Anttoni, eztun ikusten toki gutitan ipintzen dula "erreipe"? (*Erre ik be*, Plazentzi'ko euskeran *erre ik ere*. Danok dakigu berriz illobi burutan R. I. P. edo Goian bego jartzen dela).

## ZUBIPEKO AMORRAINAK

Pernando gizajoa, aspaldi artan, etzebillen suertez arrantzara aterata. Izan ere, goizean-goizeko meza entzunda (jai-eguna baitzan), kañabera bizkarrean artu ta Osintxu'ko (1) zubira joan zen amorrailara.

Goizetikan zerua goibel zegon eta Pernando arrantzan asi orduko lenengo euri-tantuak botatzen asi zun. Luzaro gabe ikaragarrizko jansa ari zun, baiñan Pernando etzan aterpe billa bere lekutik mugi. Antxen zegon eta antxen egongo zen lenengoak pikatu arte beñepein eta Pernando'ren erabakiak etziran nolainai urratzekoak.

Amorrai pikaroak ordea etzuten Pernando'ren erruki eta orduak joan orduak etorri, gure plaentxiarra blai eginda jarri zen.

Erabat etsitua zegon garaian, Patxi Ezten esaten zioten adiskide bat egokitu zen albotik.

—Ta, arraiñik asko alda, Pernando?

—Oraintxe etsi-etsi egin diat, —erantzun zion garrazkeriz Pernando'k.

—Ordu pare batian ementxe niok iñora mugitzeke, blai-blai, eta eztiat batto atxeman (2).

(1) Martirieta, Los Martires.

(2) Txiki bat arrapatu.

—Enatxiok batere arritzen, Fernando.

—Zer da?

—Eztuk ikusten euria ari dula?

—Bai, ardoa baiño obeto ziok euria Osintxu-Plaentxitan. Baiña...

—Baiña, diñok? Orra, Fernando, amorraiñak eu baiño burutsuagoak dituk eta euria egiten dunean zubipean gordetzen dituk ez bustitzearren...

—Arrazoi duk, Patxi, baiñan onezkero nire txatxukeriak erremedio bat besterik ezetik...

—Sutondoan legortu.

—Ez gizona, ori erremedio exkaxa duk. Kanpotik busti geran ezkerro, barrendik busti ardandegian.

—To! Ederki asmatua zegok ori.

Sartu ba'ziran sartu... sekulako "amorraiakin" atera ziran etxe aldera. Patxi'k nai zuna esango zun, baiñan egun artan amorraiñak Osintxu'ko tabernara joan ziran aterpe bila.

## XL

### PERNANDO TA ANTONI

Pernando'ri andrea Donosti'ra joan ziztaion egun batez zerbaiten aitzekian. Etxera-koan, Anttoni, sekulako espantua egiñaz sartu

zen sukaldean, Pernando, berak maniatutako aparia mauka-mauka jaten ari zen artean.

—Ene, Pernando! —Ekiten dio andreak ziara estututa,— Nik egin diat eskapadia gaur goizean estaziñoan.

—Zer egin din, trenak eskapa?

—Ago ixilik zorakeririk esan bage. Trenak ia arrapatu natxeok!

—Egon trankil, andrea, —ekin zion Pernando'k ardoari trago bat egin ondoren—. Ez au arrapatu ta... ez arrapatuko. Pernando'k etzeukan alako suerterik!...

## XLI

### URTEBERRI, URTEZAR, PERNANDO BETI GALTZA ZAHAR

Pernando Amezketako ta Pernando Plaentxiako zaunk eta zurruterako biak senide. Zer egingo... biak ere euskaldunak izaki, euskaldun jatorrak, eta euskaldun onak jaki onari omen.

Peririk ba'zan, eztegurik ba'zan, Plaentxiakoa ta Amezketakoa alkarren ondotik ibilliko ziran, oturuntz on baten usaiñean, alegia. Dirurik izan ezkeru etzan buruausterik sabelari atsegin ematen, baiñan dirurik ezean, eta

ez eukitze ontan ere senide ziran bi Pernando'k, buruari txinpartak atera bear maikideen artean exeritzeko.

Bazkari on baten aukera izaten ba'zuten, ez batak, ez besteak etzuten biaramon goize-raño presik izaten eta gaberdi-zaharretan (1) etxeratu oi ziren berebiziko mokolloarekin.

Aspaldiko oitura zaharrari jarraiki, joan zen bein Pernando Elgoibar'en egin oi duten Gabon-zaharreko perira.

Bapo apaldu ta bapo edan, etxeratzea gogoratu zitzaioneko gaberdi zen eta noski gorako ta beherako tren guziak anka egin zuten aspaldi. Beraz, oñez joan bear, alkolaren berotasunak gaueko prexkurean gozaturik.

Maltzaga baiño len, Saturixo'tik urbil, bada Lau-Pago esaten dioten leku bat.

Gure gizona, arestian esan bezala, zaragi jantzita (2) zijoan eta lapur edo lapurkillote batzuk, ordikume bati ebastea (3) errez iritzirik, zitunak oro kendu zizkioten.

Bearrik, dirurik geiena perian eralgi (4) zun eta lapurreta egin ziotenean lau ogerleko besterik etzitun soñean. Pernando'ri ordea grazia egin nunbait lapurretak, Plazentzia'ko errian algaraka sartu baitzan.

---

(1) Gabean berandu.

(2) Mozkor.

(3) Lapurtzea.

(4) Derrochar.

Serenua urbildu zitzaion eta onela galdegin :

—Zer duk, gizon, ainbesteko zaratakin.

—Orra. Lau-Pago'ko ortan lapurrak bide-  
ra irten eta lau duro kendu zizkidatek. Ez ote  
duk parragarri?

—Iretzako ez noski.

—Izango eztuk ba, gizona! Lau durotan  
bat paltsua sartu ziekat. Ja, ja, ja, ja! Ik, umo-  
rea zer dan eztakik! Ja, ja, ja, ja!

Eta berriz ere iji ta aja parrari emanaz  
etxe aldera jo zun. Eztakit biaramonean ain-  
besteko parregureak eragingo ote zion, ogerle-  
ko paltsu baten truk iru galdu zitula oartzean.  
Berak ez-ezik, andreak eta seme-alabak ere  
gerrikoak estutu bearko bolaratxo batean Ga-  
bon-zaharreko periaren oroimenez. Berriz ere  
aitu bearko orratik plaentxiatarren abotan “Ur-  
teberri, Urtezahar, Pernando beti galtza za-  
har”.

## XLII

### BI IL

Pernando'k, ba-zun adiskide jator bat Do-  
nosti inguru ortakoa berak zionez eta one-  
txegatik Gipuzkoa'ko erriburuaren izenez dei-

tu oi zun berak ere. "Donosti", transportista edo zen, beñepein, kamioi zahar bat artuta ttriki ta ttarraka batera ta bestera ibilli oi zen.

Pernando'ri gerrikoa estutzeko urteak etorri ba'zitzaizkion, estraperloa orotako jaun da jabe egin zanean, "Donosti"rentzako urte ioriak ziran. Izan ere, goseak, tontoak eta zintzoak estutzen ba'ditu, lotsagabeak zapart egiteko zorian gizendu oi ditu.

Estraperloarekin makiñabat diru eginda, Donosti'k, kamioi zaharra saldu ta berri bat erosi zun bikain askoa.

Aspalditxoan "Donosti"k bixita zor zion Pernando'ri eta bere kamioi berriarekin Plaentxiatik igaro zen batian, Pernando'renean sartu-erten bat egitea erabaki zun.

Pernando arrituta gelditu zen kamioi berriarekin ikusi zunean eta zerbait esan bearrez galdetu zion :

—Kotxe berria al-duk, "Donosti"?

—Bai, onek bi il (1) dizkik oraintxe, —erantzun zion parraskiro donostiarrak.

—Bi il ditula oraintxe? Alajaiña! Eztuk pizti makala erosi. Aparta nadin aguro, ezpaitik nik irugarrena izan gogorik!

---

(1) Bi illabete erosi zula. Gipuzkoa'ko izkelgian berdin esaten dugu **bi il**, "matar dos" edo **bi il** "dos meses". Bizkai'koan alabaiña, ta Plaentxia'n beraz **bi il**, "matar dos" da ta **il bi**, "dos meses". Ortik Pernando'ren itz-jokoa.



## XLIII

### USAIÑAK GOSE, OKELA ASE

Beiñola, Eibar'ko Gallastegi-Lagunarte-koak apari eder bat antolatu zuten zerbaiten aitzekian.

Pernando'k, lagunarte ontan sarrera ba-zeukan adiskidetasun bitartez, baiñan apari-rik ez, maikide bakoitzak ogei duroko bat ipiñi bear baitzun sabel-jai ura egiteko.

Pernando ogi puska legor batekin azaldu zen apari garaian eta jan-gelaren irutxur (1) batean kokatu zen.

Maikideak apaltzen asi ziranean, Pernando'k erdibitu zun bere ogi legorra eta maietik zetorren janari usain ederrean ogia aizetuz, asi zen mauka-mauka jaten. Maikide batzuk oartu ziran Pernando'ren usain arrantzan eta batek galdetu zion:

—Zer abil, Pernando, ogia aizetuta jaten?

Pernando gizajoak bekaitz gorritan (2):

—Okelik ezta etortzen eta aren usaiñari eldu bear.

Maikideak biotz-zabalak ziran eta guztien baiezkoakin apari artan leku egin zioten gure Pernando'ri.

Bejondeikela, Pernando !

---

(1) Angulo, Plaentxia-Eibarretan.

(2) Inbidi gorritan.

## XLIV

### PERNANDO'REN LENENGO MAITE KANTA

Pernando, bere lenen gaztaroan nesketa-  
rako oso motza omen zen.

Anttoni'rekin asi baiño len beste zenbait  
ibilli zitun begi-biotzetan, baiñan guk, lenen-  
goarekin gertatutako ixilpeko bat urratuko du-  
gu soilki.

Pernando, bere amasei-emezortzi urtetan  
Amaya izeneko poxpolin batez txoro-txoro egin  
omen zen. Egunak ditun orduak beragan pen-  
tsatzen joaten zitzaizkion eta kalean berriz nes-  
ka zebillen leku guzitan ibilli oi zen, aren urra-  
tsai jarraiki. Alabaiña, Pernando'k etzion itzik  
esaten, alakoa baitzan bere baitan sentitzen zun  
lotsa.

Illunabar batean Amaya zinean sartzen  
ikusi zun bakar-bakarrik eta neskarekin itz egi-  
teko abagune ona iritzirik atzetik joan zitzaion  
eta Amaya'ren gibelesko (1) jarlekuan exeri  
zen.

Pelikula bitarteko atsedenaldirian, deskan-  
tsuan alegia, Pernando'k, egiñal izugarri ba-  
tez sorbalda ikutu zion neskari eta dardara ba-  
tean esan :

---

(1) Atzeko.

—Adizu, ni Fernando naiz.

Neskak berriz parrari ezin eutsirik:

—Ba, ni ez.

Eta lotsaren-lotsaz urratuta gelditu zen  
Fernando'k ausnarren zeraman jardun aria.

## XLV

### GURE MIGEL!...

Iñoren izen-abizenik enuke agertu nai Plazentzia'ko ipuin abetan, jende asko errebera baita mundu ontan ta iñor saminduko dun gauzik ez ipintzearren, Plazentzi ta Eibar'ko notiñen (1) izenak Fernando'ren izenpean estali ditut; orrela, erregarririk aipatzen ba'dut ere, ezta iñor erretzen eta makiñatxo bat bai gozatzen. Oraingoan ordea, pelotari ezagun baten izen-abizenak aipatu bearrean natzaizute, gañerakoan ipuiña ziaro motelduko bailitzake.

Migel Gallastegi Eibar'ko seme ta pelotari ospatsua dugu gizon onen izena. Eztiñogu pelotari bikain onetaz gauza txarrik eta eztut us-te minberatuko zaigunik... gure Migel.

Plazentzi'k eta Eibar'ek beti izan dute auzotasunak dakarren alkarrenganako espa. Ala-

---

(1) Persona, personaje.

baiña, espa orren azpian eztago gorrotorik, alkarrenganako maitakuntza zindoa baizik.

Migel'ek, pelotan asi zanean, bolara txararak izan omen zitun eta plaentxiarrak makinabat parre ta burla egiten omen zioten "eibartar kankalluari".

Pernando, Eibartarrei txitxareak berotzen ibiltzen zanetakoa zen. Naiz Eibar'en, naiz Plaentxia'n, Migel'ek galtzen ba'zun, laister asten zen zaratan Pernando:

—Ustela! Txatxua! Ergela! —eta azkeanean gogorrena—. Ezaun duk eibartarra aize-na!

Edo-ta eibartarrai aldrai jeupadaka:

—Nola nai duzute Migel'ek irabaztia? Ortarako gizonak Plaentxia'n jaio bear du!

Onelako amaika garrazkeri ba-zitun Pernando'k Migel'entzat eta eibartarrentzat, baiñan, garrazkeriok azalekoak bakarrik ziran, Plaentxiarren eta Eibartarren arteko auzi-mauzi guziak bezala.

Ona orain Pernando sakonetik. Migel, poliki-poliki pelotarien artean nabarmentzen asi zen eta bere gora-bidean sekulako abaila artuta, Eibar ta inguruetako jainko txiki biurtu zen.

Migel'enganako aundi-espen au Pernando'ren biotzaz ere jabetu zen eta Gallastegi, bere leikide guziak xeatuz, garaille ertetzen zanean,

naiz-ta Eibar'ko Astelena'n izan, pelotariaz  
arro-arro eginda itz oek esaten zitun soilki:  
—Gure Migel!

## XLVI

### PERNANDO ARGIZALE

Pernando'k etzun sekula ogibiderik (1)  
ikasi, buruz argia bezain alperra baitzan.

Plazentzi'ko lantegi batean peoi aritzen  
zen, baiñan eginkizun artan delako krisisa edo  
zera sortu omen zen, nagusiak porrot egin, lan-  
tegia itxi ta langille gizajoak kalera.

Plazentzi'n lanik arkitzen ez, etzalako edo-  
-ta, ugazabak Pernando'ren lanerako leia eza-  
gutzen zutelako, ta Eibar'era jo zun "Odolki"  
esaten zioten beste langabe batekin.

—Ara, —esan zion Odolki'k Pernando'ri  
bidean zijoaztela—, Eibar'en peoi lanik ezti-  
gu idoroko (2) "koreanuak" erriko jaun da ja-  
be egin baidituk. Beraz, zedozertan espezialis-  
tak gerala esanaz presentatuko gaituk.

—Baiñan, ezertxore etzekiagu, —ekin zion  
Pernando'k.

—Etziok ajolik, —erantzun zion Odol-  
ki'k—, aurrena sartu ta... gero gerokuak.

---

(1) Ofizio.

(2) Arkitu.

—Arrano-arranoak! etzeok gaizki pentsatuta. Ori besterik ezpa'duk, laister eginen diagu.

—Orra: nik esango diat mekanikoa naizela eta euk argizalea (1).

—Baita inkenerua ere nai ba'duk.

—Eztuk bearrekoa ain gora jotzea.

Sartu ziran bada Fernando ta Odolki lan-tegi batean eta ugazabak (2) galdetu zion Odolki'ri:

—Ta, ik zer dakik?

—Ara, jauna, ni mekanikoa naiz ta onetakoa gero.

—Emen ordea eztiagu bear mekanikorik, argizalea baizik.

—Ba, ortan ere ba-dakit, jauna, mekaniko asi aurretik argizale ibilli bainintzan ain zuzen ere.

—Ederki, ederki, laister ikusiko diagu nolakoa aizen.

Gero Fernando'ri:

—Eta ik zer dakik?

—Ara jauna, nik bitatik bat nekian (3), baiñan, adiskide au nire jakituri guztiarekin gelditu da ta oraintxe nereak egin du.

Pernando alakoxe zen, txiste baten truk goseak gelditzen zekina.

---

(1) Electricista.

(2) Nagusia.

(3) Bi ofiziotatik bat, argizale, alegia.

## XLVII

### BAT ETA GEIEGI

Lenago ere esanak gaituzu (1), Pernando'k bere gaztetan begi bat galdu zula eta zuloaren betegarri kristalezkoa erabili oi zula. Bein, adiskide bat, Pernando'ri adarra jotzeko go-goarekin zebillen eta orra zer bota zion gure Plaentxiatarrari:

—Begi bakarrarekin eztuk asko ikusiko, Pernando.

Eta orra Pernando'k zer erantzun zion:

—Oraingo munduko gauzak ikusteko bat ere geiegi duk.

## XLVIII

### PERNANDO BIOZPERA

Pernando'k soñeko (2) txukunik etzun jai-egunetarako eta dirurik ere ez berri bat egiteko. Nun topatu ordea, berari soñeko berri bat egingo zion jostunik? (3).

---

(1) Ikus VI'gn. atala, "Pernando'ren gose-bildurra".

(2) Trajea, alegia.

(3) "Jostun", sastre esateko erabili dezagun eta "jostuntsa", costurera, bestela ezin bereiz ditzakegu bata ta bestea. "Alargun", viudo ta "alarguntsa", viuda bezala.

Izan ere, len egindako guziak zorretan utzi zitun eta jostun guziak aurretik ordaintzea eskatzen zioten.

Ontan, jabetu zen Bergara'n jostundegi berri bat zabaldu zutela eta ara jo zun anka ta buruz. Uri ontako kaletan barrena zijoala adiskide bat ikusi zun eta esan zion:

—I, Kattagorri, lagundu zaidak alako jostunaren etxeraño.

—Ezin diat, Pernando, zer-egin asko zeukat-eta.

—Motel, motel, bost minutuko gora-bera besterik eztuk. Gero ere joango aiz ire eginkizunetara.

Amor eman zun azkenerako Kattagorri'k eta orra biak jostundegian sartu.

Jostunak oial bereiziak erakutsi zizkion sal-neurri guzitatik.

Pernando'k, aietako oial bat begiz jo zun. Arekiko soñekoa milla ta berreun peseta kostako omen zitzaion, baiñan, beretzako garesti izaki eta oial arekin milla pesetan egiteko ziri-ka asi zitzaion. Jostunak berriz ezetz, oial kaskarragoarekin milla pestan egin zezakeala eta berak etzula lanik egiten dirua galtzeko.

Pernando kaskagorra ba'zan, jostuna arago eta onek azken itza bere. Gure plaentxiarra, ezinbestean, milla ta berreun pesetak ordainduko zitula gelditu zen. Artu zizkion neurriak eta Kattagorri ta biak kalera erten ziran. Au-



rreneko baxoerdia artzen ziardutela, Kattago-  
rri'k, ziara arrituta galdetu zion Pernando'ri:

—Zergatik ukan olako leia berreun peseta  
merka-azteko, xoxik ere ordainduko ezpa'  
diok?

—Orra, gizajoak erruki eragin zidak eta  
nire esanera makurtu izan ba'litz, berreun pe-  
seta gutxiago galduko lizkikek. Ez nikan uste  
gizona ain asto koskorra zitekeanik!

—Bapo zegok, to! —Ekin zion Kattago-  
rri'k parrez ler gaizto egin bearrik.

## IL

### ARTU TA EMAN

Pernando bere adiskide batzuekin Elgoi-  
bar'ko peritara joan zen bein beste askotan lez  
eta urrean zebiltzan baserritar batzuei adarra  
jotzea pentsatu zun. Au dala-ta, esan zien bere  
lagunai:

—Zuetako batekin borroka itxurak egin-  
go dizkiat eta ankapian artu ondoren jeupada  
egingo ziekat sail ortako baserritarrai: —Ba-  
-dago bat! Iñor ertetzen ba'duk indarrak neur-  
tuko dizkiagu, baiñan, bera ni baiño gogorra-  
goa baldin ba'da, zuek nire alde aterako zera-

te eta berebiziko egurra artu arte eztiagu utziko.

Baietz ta baietz, danak kontent urko-lagunaren lepotik parre pixkabat egiteko.

Egin zituzten bada borroka itxurak eta erabaki bezala Pernando garaille erten zen. Orduan, lurrean zetzanaren gaiñean anka ipiñirik, Pernando'k axut (1) egin zien alboko baserritarrai:

—Ba-dago bat!

Tantai moduko baserritar bat erten zen plazara eta txamarra kendu ondoren, berebiziko jipoia astindu zion Pernando'ri. Onek, begiratu zun ingurutara, baiñan bere adiskide guziak ollotuta anka egin zuten.

Pernando'k, aurreneko berotualdia pasata, onezkoak egin zitun bere adiskideakin, baiñan barruan asmo sendoa artuta zeukan aurreneko abagunean apentza (2) artzeko.

Bi illabete igaro ziran bere asmoak mamitu aurretik. Jaiegun batean ordea, trena artu ta Durango'ra joan zen. Emen, aitzea zeukan aberats gizatxar bati kotxea ostu zion etxe-ataritik eta beronekin Eibar'era etorri zen. Belaxe, lagunetara bildu zen eta esan zien:

—Osaba bat etorri zaidak ziara aberastuta Ameriketatik, eta bere kotxea utzi zidak, orain "haiga" esaten dioten oietakoa, Bilbo'ra

---

(1) Desafio.

(2) Bengantza.

egun pasa joan nai ba'diagu. Zer deritzazute, mutillak?

—Anka ta buruz gañera, —erantzun zioten lagunak.

Pernando bolantian jarri zen eta Durango'ko kale-ertzera eldutakoan esan zien lagunai:

—Zagozte emen pixkabat; mandatu bat egin eta bereala natxetorrek.

Pernando, aberats gizatxarraren etxera joan zen eta esan zion bere kotxea nun ikusi zun.

—Bost lagun dagoz barruan, —gañeratu zion—, mozkor-mozkor egiñik. Lapurrak izateko itxurik eztute baiño bai ganberro galantak. Alakuak ebain-ebain egitea merezi lukete.

—Ori nire kontu utzi. Lapur tankera ba'dute salatu egingo ditut eta ganberro oietakoak ba'dira berebizikoak artuko dituzte.

Artu zitun berekin iru morrosko Elgoibar'ko plazan erten zanaren modukuak eta joan ziran Pernando'rekin kotxea geldituta zegon to-kira. Pernando'k esan zien:

—Orra nun diran.

Aberatsa ta mutillak aurreratu ziran eta Pernando'k berriz atzera egin zun aurreneko kale-ertzeraño. Andikan ikusi zun "puntziua".

Aberats petralak eldu ta esan zien Pernando'ren lagunai:

—Atera banan-bana, lapur urdeak!

Atera ziran, baiñan bai bakoitzak zartako

ederrak artu ere lurrean oña jarri orduko. Bearrik, salatu gabe joaten utzi zitun aberats gizatxarrak.

Pernando'k kale kantoietik algara ederrak egin zitun bizkarrak berotuta antxintxika joaten ikusi zitunean.

Pernando'k artzen baldin ba'zekin ematen ere bai.

## L

### “BERDELA”REN LARRIAK

Beiñola, Pernando'k eztabaida gogorra zun “Berdela” esaten zioten adiskide batekin. Pernando'k, urpian iru minutu egin baietz arnasik artzeke eta Berdela'k ezetz.

Berrogei duroko dema egin zuten eta Pernando ta Berdela joan ziran ibai ertzera. Pernando, presape batean erantzi eta uretan murgildu zen. Urpetik, Pernando'k presa azpirako bidea artu zun eta orma ta ur tartean gelditu zen bere adiskideari begira.

Ura arrea ta ugaria zetorren eta Pernando zulo artan gorde zanik ezin kanpotik igarri.

Iru minutu ez-ezik, bost eta amar ere igaro ziran eta Pernando ur-azalean agertzen ez. Berdela, ziaro larritu zen, baiñan, berak etzekin



—Murgil ederragorik eztiat egundaño egin!

igeri eta antxintxika errira joan zen laguntza eske.

Laister zen berriz ere presondoan Berdela, mediku, apaiz ta erriko igerilaririk sasoitsuenakin. Igerilariak murgil egin zuten eta amar minutuan urpean ibilli ziran gorputz-billa Berdela'k esandako lekuan. Pernando'ren gorputzik ordea agertzen ez eta ainbeste denboraren buruan bizirik aterátzerik etzegola-ta, etsipenari eman zioten.

Ontan, Pernando'k igarri zion bere zulotik, apaiza beregatik il-otoiak esaten ari zela eta danak arri ta zur uzteko une egokia iritzirik, murgildu zen ostera uretan eta joan zen urpez-urpe lenengo murgilla egin zun lekuraño eta bertantxe gora atera zen arnasaldi nabarmen bat egiñaz. Ibai bazterretik danak begira zitula txundi egiñik, Pernando'k oju egin zien :

—Murgil ederragorik eztiat egundaño egin !

## LI

### ZERAKO... MEDIKUA !

Pernando gizon sanua izanarren, bein beintzat gaixotu omen zen eta sukarraren indarrarekin ikaratuta, andreak sendagilleari ots

egin zion. Onek, eriagana urbilduta, galdegin omen zion:

—Eta, zer sentitzen duzu, ba? Nun duzu min?

Pernando mutu. Sendagilleak berriro ere galde eta Pernando'k itzik ere ez. Azkenean, berebiziko zima gaiztoz ekin omen zion medikuari:

—Ze arraio! Asmazazu zerorrek! Norberak esan ezkeru neu ere izango nintzake mediku! Ortarako jarduten al-duzute ainbeste urte liburu jaten?

## LII

### EUSKERA IKASTEKO EPE URBILLA

Eizea zala edo erriko festak zirala, ziur enago zer dala-ta, Pernando, Lekutio (1) inguruko erri koxkor batera eldu zen. Araba'ko erri koxkor auetan gure euskera maitea azken arnasetan datza. Zaharrak egiten dute, elduak geieneko ulertu eta gazteak ez itz, ez ulertu.

Pernando beti euskeraz egiten oitua zegon eta etzekin gure izkuntzaren egoera zorikabea erri auetan.

---

(1) Legutiano, Villarreal de Alava.

Erriratu bezain laister, berrogeitamabost urte inguruko gizaseme bat topatu zun eta zertxobait, (eztakit zertxo) galdetu zion euskeraz. Gizasemeak onela erantzun zion erderaz:

—Eztut ulertzen euskeraz.

—Ez al-dute ba erri ontakoak euskeraz egiten?

—Irurogei urtetik gorakoak danak dakite, —erantzun zion gizasemeak—, baiñan ortik beherakoak gutxik.

Pernando'k, gizasemearen arpegiari zorrozkiki begiraturaz, onela ekin zion:

—Irurogei urtetik gorako guztiak egiten ba'dute, zuk ere laister ikasiko duzu, gizon.

### LIII

#### LEGOI EIZTARI

Beiñola, gure Pernando itxaso zear omen zijoan ontzi aundi batean. Itxasoa gaiztotuta edo Jaungoikoak ote daki nola, ontziak, ipurdiz gora egin omen zun beintzat. "Itxaso Barea" esaten diotenen gertatu omen zen ondakizun au, eta an, ugarte koxkor asko diranez, laister atxeman zuten legorte bat itota galdu etziranak.

Salbatutakoen artean ba'omen ziran pran-



tsesak, inglesak, españolak... eta batik bat gurre Fernando Plaentxiatarra. Ugarte artan, urak artutakoen ustez, pizti gaiztoak eta gizontxo gizajaleak bizi omen ziran. Au dala-ta, lenengo gauza leize baten billakatzea egin zuten beren buruak segurantzian ezar zezaten. Gero, goseak estututa, erabaki omen zuten zotzetan egitea nor jan billa atera eta orra Fernando'ri suertatu jatenaren billa ertetzea.

—Ba-zijoan ttapa-ttapa, ondar zear aurrenik, oianbeltzean gero, malkorretan urren, gosea ainbateko bildurra berarekin zula. Ontan, ez bat eta ez bi, legoi batekin oztopo egin zun. Une artan gosea zer zen aztu zitzaion eta Bildur Jaunak eman zizkion zanko ariñakin asi zen antxintxika bere lagunak bilduta zegozen leize aldera eta legoia berriz atzetik Fernando'ren mami gozotan bere atzaparrak josi bearrez.

Leize abora eldu zen unean ordea, oztopo egin zun zerbaitekin lurrean eta legoia, ia oraturik baitzun Fernando une artan, bere gaiñetik salto egiñaz, sartu zen leize barruan. Orduan, onela oju egin zien Fernando'k leize barruagui:

—Ia mutillak, kendu orri azkar larrua, laister ekarriko dizutet beste bat eta.

Baiñan, Fernando'ri Bildur'ek pake eman ba'zion, Gose'k eman zion berriz ere gerra eta delako bi lengusuak adiskide txarrak ziran gurre Plaentxiatarrarentzat.

## IRRATI PRANTSESA

Pernando'k, beiñola eta eztakit nola, xox batzuk egin omen zitun eta oi bezala jan-edanetan gastatu bearrean, irrati edo radio bat erostea erabaki omen zun. Radio-etxe batera joanda esan omen zion dendariari:

—Ona eman, gero, e?

—Bai gizona, orren dudik ez egin—, erantzun omen zion dendariak.

Eman zion “Philips” bat, “oberik ezpaita” eta gure Pernando abia zen etxeruntz kontentutako asko.

Andrea ta biak, ziara umetuta, asi ziran estaziño bat ipiñi ta bestea ipiñi. Baiñan, lenengoak, bigarrenak, irugarrenak eta danak prantses jotzen zuten (1).

—Andreak, erneatuta, esan zion Pernando'ri:

—Ederra egin ditek! Au, radio prantses duk!

—Bai ote?

—Bai gizona, bai, radio prantsesa saldu ditek. Ua berriz dendara eta trukean española emateko esaiok.

---

(1) Española ezten izkuntza oro.

Ba-dijoa berriro lengo irrati-etxera gure  
Pernando eta onela dasaio dendariari:

—Aizu, au, irrati au, prantsesa da.

—Prantsesa? Nola izango da ba prantse-  
sa? —Ekiten dio dendariak arri ta zur.

—Dan bezelaxe. Naiz estaziño batean ipi-  
ñi naiz bestean, beti prantsez jotzen du.

—Aaa !... bai ba... —ekiten dio bat-batean  
irrati-saltzalleak aboa zabalduz—. “Kortan”  
(1) ipiñiko zenduten-eta...

—Kortan? Zagoz ixilik gizona, sukaldean  
ipiñi gendun-eta !

## LV

### ZOZUAK BELEARI...

Pernando'ren griñarik txarrena zer zen de-  
nok badakigu... zurruta maitexkoegi izatea.  
Griña sustraitsu onek osasunari onik egiten  
ezpa'zion ere, adimena argitzen zion noizik eta  
bein eta ateraldi politak sortu erazi.

Ba-zijoan ba “epel-epel” eginda bere la-  
gun batzukin jai arratsalde batez Plazentzi'ko  
kale nagusian barrena eta albotikan zitun nes-

---

(1) Dendariak “onda corta” esan nai eta Plazentzi,  
Eibar eta Bizkai guztiko euskeran “korta” ukullua izaki.

ka gazte guztiai loreak botatzeko burukizunak jo zion. Alaxen bada bati:

—Agur, neska polit ori!

Neska etzan iñundik ere lotsatia eta onela erantzun zion:

—Asko sentitzen dut, baiñan, nik zuri ezin esan mutil polita zeranik.

—Zuk ere, —erantzun zion Pernando'k maltzurki—, egin zazu nirea: Gezurra esan.

## LVI

### JANAK JAN

Pernando Plaentxiatarra, Amezketarraren moduan maiz ibiltzen zen bazkari on bat nun eta nola atxemango.

Baiñan, oturuntz on bat egiteko dirua bear eta gure Pernando'k (ontan ere Amezketarraren senide) baxoerdi batzuk artzeko doi-doi izaten zun sakelean.

Alabaña, Pernando gizon argia zen eta egi-ten zun modu noizpeinka sabelaldi on bat egiteko, baten lepotik ezpa'zen, bestenetik. Iñorengana ezin urbildu zenean ordea, buruari atz egin bear otordua antolatzeko. Orra ba, bein-gez, zernolakoa asmatu zun oturuntz on bat egiteko.

Bilbo'ko adiskide bat bidaide artuta, joan zen Elgoibar'era bere ezagun baten jatetxe dotore xamar batera eta esan zion restaurante-jabeari, berarekin zekarren adiskidea Venezuela'tik etorri berri zela ziaro aberastuta eta bazkaltzera konbidatu zula.

Jarri ziran, bada, bazkaritan, eta aukeratu zituzten kartako jakirik onenak eta... garestienak, aboa gozatu zuten, urdailla ase eta... gero gerokoak. Fernando'ren pilosopia alako-xea zen: "Gu ondo bazkaldu gaituk eta iñork etziguk kenduko jandakoa".

Ordaintzeko garaia eldu zen eta ez Fernando'k eta ez bilbotarrak xoxik etzuten bazkaria pagatzeko. Orduan, pentsatuta zuten bezala, Fernando'k esan zion bilbotarrari:

—Ua korrika kalera eruena egiñaz.

Bilbotarra atera zen jatetxetik, baiñan baita ugazaba ere atzetik. Au ikusita, Fernando ugazabaren atzetik erten zen.

Jatetxeko nagusiak ia arrapaturik zeukan bilbotarra, onek kendu zun txamarra, jaso zitun maukak eta asi zen aginka alboan topatu zun arbol baten enbor azalari. Eta "eruenta" egiten gure bilbotarra mutilla zela aitortu bear.

Ugazaba txunditurik eta ikaraturik zegola zoroari begira, Fernando alboratu zitzaion eta esan zion:

—Ene! Berriz ere zoroak jo dio! Vene-

zuela'ra joan aurretik alako zerbait ba-zun eta orain iñoiz ez bezelako amorrazioarekin eman dio. Etzaitzela orain beragana urbil Jaungoikoarren, ezegiteko bat ez dezan egin. Utziozu pakean bere onera etorri arte. Gaiztoaldia joan dakionean, eskatuko diot dirua eta pagatuko dizut.

Elgoibartar ostalariak sinistu zion Pernando'ri eta itzuli zen bere jatetxera. Pernando eta "zoroa", berriz, trankil asko etxeratu ziren.

## LVII

### IÑAUTERITAN

Pernando'ri, iñauteritan ganberrokerian ibiltzea zitzaion atsegin. Plaentxia'n eta inguruko erritan ordea, Pernando iñauteri jaiez iguinduta zegon, jende guziak ezagutzen baitzun erri auetan eta orretxegatik, iñork ezagutuko etzun ustetan, urte batean Gazteiz'era joatea pentsatu zun.

Joan zen bada bere adiskide batzuekin eta erdi mozkortuta ziranean danak, adiskide baten letreru bat ipiñi zion bizkarretik zintzilik gure plaentxiatarri "Pernando" izenarekin.

Laister, Gazteiz'ko motiko guziak albotik zitun Pernando! Pernando! ojuka. Orduan

Pernando'k, ziara arrituta onela esan zien bere lagunai:

—Au duk au, mutillak! Emen ere muki-tsu guziak ezagutzen natxiotek —Gero bere bu-ruari: —Pernando, Pernando, eztaukak inõra joaterik, kaka baiño ezagunagoa aiz-ta.

## LVIII

### EZTUK BERDIN

Donostia'tik Plaentxia'ra trenean zetorren batean, gure Pernando'k auntz bat ikusi omen zun larrean leiotillatik eta berarekin zetozen erritar batzuei onela esan zien:

—Orretzek zeukak Urlia'ren antza!

Berak aipatutako izena Eibar'ko jaun dirudun batena omen zen eta Pernando'k esandakoaren otsa aren belarritaraiño eldu omen zen. Egun batzuk geroago, Eibartarrak eta Plaentxiatarrak kalean topo egin omen zuten eta lenengoak onelatsu ekin omen zion bigarrenari asarre antzian:

—Ik esan omen duk nik auntzaren antza daukatala.

—Nik eztut egundaño olakorik esan, —erantzun zion Pernando'k patxada ederean—. Zuri gaizki esan dizute nunbait kon-

tu-kontari joan zaizkizunak. Nik esan nun auntzak daukala zure antza eta ontaz, auntzak asarretu bear luke eta ez zuk.

Orra, berdintasunaren diferentzia Pernando'k aditzen eman...

## LIX

### PERNANDO'REN SUDURRAREN MARGOAREN...GORRI

Gure Pernando gizajoa ardoari gero ta emanago zegon eta noski, bere sudurraren karkoa marrubi kolore biurtzen ari zen, ardoak aurrena kanpotik barrenerako lana egiten baitu eta gero barrendik kanporakoa. Pernando'ren lagunak, adarra jotzarren, makiña bat aldiz esan oi zioten :

—Pernando, ik dituk koloreak...sudur karkoan !

Pernando'k, ordea, aterik aiña maratilla baitzun, zakurra baiño lasaiago :

—Ai, enetxua ! Koloreok ederki kostatakoak dituk ! Sudur karkoa gorriago ta sakela utsago. Auxen duk nire martxa !



## PERNANDO ETA KATAMOTZA

Pernando tabernazuloan izketan asten zanean, mundua txikitxua iruditzen zitzaion bere gertaerak kontatzeko. Ameriketako eta Txina'ko kontuak bere etxeakoak bezala esan oi zitun, Pernando ezpaitzen iztun kamotza, batez ere ardoaren eragiñez tamaña batean jartzen zanean.

Alaxe bada, ardoz epeldutako batean, lagun sail bat inguruan zularik, onelaxe asi zen bere gaztetako aventura larri bat kontatzen:

“Shangai'en nengola, lagun batzuk etorri zitzaizkidan eurekin eizera joan ote nai nun galdezka. Nik, baietz eta pozik, eiztari amorratua nintzala-ta.

“Sartu giñan jungla deritzaioten oianbeltz ikaragarrian eta laister somatu genitun inguruan basapiztien orru izugarriak. Arboladian barrutik ibilli ta ibilli, neronek igarri ez nola, lagunengandik aldendu nintzan. Jo batera ta jo bestera apurtxo batean ibilli ondoren, garbiune batera eldu nintzen. Larritu ere, apurtxo bat larritu nintzan bakartasun artan eta lagunei ojuka asi. Lagunak ordea jaramonik ez, eta nire axanpa (1) gutxi bailitzan, ez bat eta

---

(1) Angustia.

ez bi, katamotz (1) bat agertu gose-orruak egiñaz. Asi nintzen antxintxika eta laister ekin nion arbol baten enborrari. Baita katamotzak ere, baiñan eskerrak pizti anka-traketsa labainduta lantzian bein jausten zanari, bestela jango nindun bizi-bizirik. Arbolaren puntaraiño igo nintzanean, asi nintzen berriro lagunai ojuka. Leluok azaldu ziran noizpait, nirebiziko estuasunak igaro ondoren, eta Jaungoikoa'ri eskerak il zuten katamotz ikaragarria.

Orduan, entzuletako batek onela diño Pernando'ren kontakizunak egindako zirrarez:

—Neri orrelakorik gertatu ezkeru, zera're...egingo nitek praktetan.

Pernando'k:

—Kaiku aundi i! Katamotza nun labaintzen zela uste ukan ba?

## LXI

### BEGIONDOKOA

Pernando eta beste lagun bat, itzez eta ardoz berotuta, mutur-joka asi ziran tabernazulo batean.

Egoera orretan ezta gauza aundirik bear

---

(1) Tigre.

izaten ukabilka asteko, ardoaren beroaldian edozer esankizun baita iraingarri zurrutez okitutakoaren ustean.

Dena den, Pernando'k ukabilkada batez lurrean luze-luze utzi zun bere adiskidea edo... leikidea obekiago mintzatuz eta liskarrak aurrera jarrai ez zezan, ardandegiko ugazabak eta beste adiskide batzuk aldebitaratu zituzten bi borrokalariak.

Lurrean zetzanak, kolpe bat gaitza zeukan begiondoan gure Pernando'k arestian emana eta bere kolpea señalatuz, onela ekin zion Pernando'ri zemaikor:

—Au eztuk orrela geldituko, alajainkoa!  
Eta Pernando'k:

—Ez orixe, aunditutakoan egongo duk ederragoa!

## LXII

### URREAREN OTSA!

Plazentzia'ko kale-bazter batean oztopo eta orra nola diarduten izketan apaiz egin-berri batek eta Pernando'k:

—Kaixo, aspaldiko... Xanti... edo Don Xanti esan bearko, apaiz biurtu zeran ezkerero.

—Ez gizona... lagunartean lehenak gaituz. Zu Fernando eta ni Xanti.

—Eta jakin al-diteke nun arraio bizi zeran?

—Bizkaiko erri koxkor bateko auzo koxkorrago batean... Izena esateak ere eztu balio, mendian galdutako baserri talde bat besterik ezpaita.

—Ta? Kontentu?

—Ainbestean. Jendea ona da, baiñan bideak ain dira zikiñak!... Etxetik erten orduko, lokatzaz blei-blei, belaunetaraiño inkillatuta (1) gelditzen naiz.

—Ijiene kontuko sermoiak egin, Xanti, ijiene kontukoak.

—Alperrik baiña! Buru gogor oietan ezta orrelako gauzik kabitzen!

—Eztira izango noski zeuk pentsatzen duzun aiñako kaskagorrak. Ni an ba'nengo, laister gorde eragingo nieke kolko barruan auzoko lokatz dana. Apostu egingo nizuke, ni ara joango ba'nintz, arrats batean bide guziak garbitu baietz.

—Olako abildaderik ba'zenu, Fernando, nire ango egonaldia zorioneko egingo zenidake.

Egun batez, Fernando jantzi zen ahal zun dotorenik (korbata ta sonbreru), bete zun maleta bat botikario jaunari eskatutako kristalez-

---

(1) Inkillauta, "plagado", Eibar-Plazentzitan.

ko ontziz eta Praixku zeritzan adiskide bat lagun arturik, abiatu zen Xanti jauna apaizgoan zegon auzo koxkorrera.

Aurreneko lokaztegian geldialdi bat egin zuten jendeak ondo ikusteko moduan eta maletatik kristalezko ontziak atereaz, asi zen Fernando loiez betetzen, aldizka-aldizka lokatza ontzi batetik bestera aldatzen, ur pixkabat nahasten eta noizik eta bein ontzia goruntz jasoz argitan luzaro aztertzen. Praixku berriz, maleta esku batean eta kristalezko ontzi bat bestean, Fernando'ri abo zabalik begira. Artan-orretan, auzoko guziak oartu ziren gure gizonak mixterio zerbait zerabiltela. Zenbait begiluze ere inguratu zitzaizkien eta onelatsu ziar duten beren artean: "Gizon dotore oiek zertan ote dabilta?" Fernando'k eta, jaramonik ez baiña autu-batzalleoi (1) eta beren jardunkizunari jarraitu zioten.

Geroxe, Fernando'k eta Praixku'k alkar-izketa ixil bat egin zuten eta goraxeago aldatu ziren beste loitegi batera. An ere ekin zioten beren azterketa lanari. Alakoan, auzotar begiluzeak inguruan zituztelarik, Fernando'k, botilla txipi batetik atera zun loi pixkabat eskura eta luparekin begira jarrita ots egin zun bat-batean:

—Emen, emen!

---

(1) Autu-batzalle, "chismoso", Eibar-Plazentzitan.

—Bai ote, “injeneru jauna”? —Ekin zion Praixku’k abots ozenez.

Erakutsi zion eskuan zun lokatz apurra eta ontzitxo batean gorde zizun. Baserritarrak, jakin-miñez irrikitzen, asi ziren Praixku’rengana urbilduz eta galdezka:

—Zer billatzen duzute loi-tarte ortan?

—Etzait zillegi esaten. Injeneru jaunak debekatu dit gure lanen berri ematea.

Azterketa lanak amaitu zituztenean, auzoko ardandegira jo zuten bazkaltzera. Sukaldean, eskuak garbitzerakoan, ixil-mixilka eta mixterio antzean, baiñan, bidebatez, etxeoak entzuteko eran, esaten dio Pernando’k bere komedi lagunari:

—Bai, Frantzisko, bai; nik uste bezalaxe emen bertatik igarotzen zen erromatarren galtzada zaharra eta ain zuzen ere, auzo koxkor au da Oktabiano enperadorea urrez zamatuta zijoalarik kantabroak eraso zioten toki berbera. Ixtoriak esaten digunez, Oktabiano’k gudu galdu zizun eta igesiari eman zion gaiñean zeramazkian urre guziak bertan utzita. Au dala-ta, nire ustez, lokatz-arte auetan urre asko arkituko dugu. Ots! baiña, ixilik ibil gaitezen iñor aurreratu ez dakigun gure lanean.

Pernando’k eta Praixku’k bazkaldu zuten oparo ta gogaro eta arratsaldean, maleta bizkar gaiñean artuta aldendu ziran auzo loiti artatik. Biaramon goizean, Xanti jaunak, etzun

ezagutu bere auzoa. Bide bazter guziak loiez garbi-garbi agertu ziran. Zer mirari zen ura?

Luzaro gabe jakin zun. Baserriz-baserri asi zanean oi zitun bixitak egiñaz, bertako sa-paietan bilduta arkitu baitzun bide bazterre-tako loi guztia. Arrats artan etzuten lo asper-tu aundirik egin auzo koxkor artako baserrita-rrak!

### LXIII

#### UTSAK OTSIK EZ

Pernando eta bere adiskide bat, arratsalde beranduan atera ziran ardandegi batetik ardoz oi bezala okituta. Lagunak, ondoezaz edo andrearen bildurrez noski, onela diño Pernando'ri:

—Goazemak etxera, Fernando, beranduduk-eta.

—Oindiño eztuk ain berandu eta beste bat edango diagu.

Eztabaida onekin diardutela, dan!, goizeko ordubata jo elizako erlojuak.

—Ordu bata—, diño etxemiña erne zitzai-onak.

—Bai zera, amarrak! —diño Fernando'k.

—Burutik egin al-zaik iri? Ez duk entzun ots bakarra jo duna?

—Bai, noski, baiñan, zelan nai duk utsa (1) jotzia?

## LXIV

### PROPIÑA TA GUZI

Pernando oitua zegon zorren kontura bizitzen. Plazentzia'ko taberna guzitan ba-zizun diru-koxkaren bat, baiñan etzen gure Pernando ain gauza utsagatik estutzen zen gizona. Zorretan ematen ba'zioten, artu, eta ezpa'zioten, billatzen zun noren lepotik zaunk eta zurrut egin.

Sabel-zorria azkureka asi zitzaion batean, gustoko asealdi bat egin bear zula-ta, jo zun ardandegi batera, txuleta eder bat eskatzeko ustetan. Beste danetan bezala, emen ere, ba-zizun Pernando'k koxka polita eta aterako ote ziotenentz ziran kontuak.

Baiñan, bere gose-arpegiaz errukituta edo, atera zioten euntalako txuleta, zor guztiak jan-ostean garbitzekotan. Jan-edanetan bapo egin zunean, deitu zion neskameari eta galdetu:

—Aizu, Miren, zenbat da gaurko kontua?

---

(1) Utsa, "cero", alegia.



—Ogei (20) peseta.

—Ederki. Ba-al-dituzu bost peseta kanbiontan?

—Bai gizona, izango eztitut ba.

—Emaizkidazu mesedez.

Artu zitun Pernando'k bost pesetok eta ostera neskameari iru itzuli.

—Burutik egin al-zaizu, Pernando? —diño neskameak espatsu—, Kontua ogei peseta dela esan eztizut ba? Eta bost peseta kenduta gero iru ematen dizkidazu?

Pernando'k:

—Bai noski! Nik kontuak ondo atera ditut gero!

—Nola liteke, baiña?

—Orra: iru pesetok propiñarenak dituzu. Kontua ogei (20) zen, zuk bost (5) eman, nik zuri iru (3) eskupeko, eta orain, lenguz gaiñera, beste ogeitabost (25) zor nik.

## LXV

### BATA ZU TA BESTEA NI

San Martin ene adiskideak, azken orduan, liburua inprentan sartuz gero, iru ipuin bidali dizkit zoragarriro idatziak. "Bata zu eta bestea ni" ezarria dago beste nunbait "Kontrako indarra" izenarekin. Nik, ipuin onen apuntea mendi punta batean jaso nun, mendian biltzen baigiñan San

Martin eta biok ipui txanbeliñok batzeko, baiñan, orain Eibartar adiskideak bidali ditana nire a baño askoz aberatsago eta jantziago dago eta bere idaztamera ioria txasta dezazuten, au, "Asto-Andrea" eta "Pernando'ren ametsa" itzez-itzez berak idatzi bezala ezafiko ditugu eta zeok esan, ofelako efi-izkeraren jabetasun beterik orain artekotan billatu duzuten. Ni, ezezkoan nago...

Ipuin au Esopo'ri ere irakurri nion. Baiñan, Grezia'ko ipuinlari arek nun jasoko zun ba Plaentzia'n izan ezik? Inbestigaziño bat egingo ba'litz, jakingo genuke Esopo Plaentzia'n zear ibilli zala, ipuin batzen, noski. Izan ere, erri xeblebre ontan gertatzen danik ez da beste iñun gertatzen. Baiña, orratiok, dena ez da irri ta parra emen ere, bestela ikusi dezagun andra-gizon oien gertaera. Esopo'k berezako artu zun, baiñan, eibartarroi Plaentxiatzakotzat erakutsi ziguten aurtzarroan eta orrela izango da. Edo, Esopo Plaentxiatarra ez ote zan gero? Colon ere emengoa zala esaten duteta...

Nuan kontatzera zitz ta bitz. Da, emakumeok barkatu orain ere zuek txar utzibearra. Nik al-dakit zergatik, baiña, beti andrak duzute kulpa; Mejiku'n ere gizakumeari "txarro" deitzen diote eta emakumeei "txarra". Zerbaitteagatik izango...

-Pernando ta bere emaztea, bata zu eta bestea ni, beti zebiltzan eztabaidan. Senarrak zerbait edan ere egiten zun-da; besteari berriz

axaxa emateko ezertxo ere bear ez. Emazteak, gizonari, mozkortuta zijoan bakoitzean eiñalako errosario batean asten zitzaion: "Ori da xaxari (1)..., au ez da etxeko jira..., ori al-da ba etxeko gizonaren ganoria eta errespetua..., zuk ein'bear duzu etxea ustu ta tabernaria aberastu. Baiña, ez, onela ezta; egunen batean ein'bear dut egitekoren bat. Egunen batean botako dut nire burua ibaira ta kitto". Beti orrela zebiltzan, baiñan, Pernando ere etzan mutu, onek ere mingaiña etzun geldirik eukitzeko eta berak ere esaten zizkion sekulakoak. Oliao ta ozpiña botilla batean sartuarren ezin alkartu. Orrelakoa zan Pernando eta Anttoni'ren ezkondu bearraren ondorena. Egun batean, beste askotan bezala, Pernando etxean sartu zan egundoko laupardiakin (2) da emazteak ikusi orduko:

—Mozkor!, Mozkor! Alako mozkor!...

—Ixildu zaitez, txolin ori—, esan zion Pernando'k.

—Neu ixildu? Zu mozkorti bat besterik etzera ta neu ixildu? Baiñan, egunen batian ixilduko naiz ba egundoko.

—Orrela gertatuko ba'litz, orduan bai izango nintzala ni zoriontsu.

—Zoriontsu diñozu? Berealaxe bota bear dut nire burua ibaira.

---

(1) Xaxara = poco fundamento, Eibar-Plaentxitan.

(2) Mozkorra, Eibar-Plaentxitan.

—Jardun bai.

Geiago barik, leioa jaso eta amildu zun bere burua ibaira.

—Iño! —Diño Pernando'k berekiko—, esan eta egin gaiñera! Ez nikan uste. Andratarra ukan baiña, orrela ezingo diat abandonatu.

Artu zun parola eta billa atera zan. Birtarte eta ezkutune guziak ikusiaz ba-zijoan ibai bazterretik gora. Ortan oztopo egin du Txomin eta Peru'rekin eta galdetu diote:

—Zer arraio darabilk, Pernando? Angulatan ez orratiok!

—Ixildu zakidate! Nire emazteak bere burua ibaira bota dik eta emen natxebillak arkitzen ote dutan.

—Baiñan, Pernando... Osintxu'runtz (1) ua? Ez al-dakik ibaia Maltza'runtz dijoala eta ur korrontak beruntz eramango zutela?

—Bai zera! Ezagun da nire emaztea ez duzutela ezagutzen. Eztakizute ondotxo aren "kontrako joera". Orain ere, ziur natxeok, neri kontra egitearren gora egingo zula.

---

(1) Osintxu, Martirieta edo Los Mártires, Plazentzia'tik gora dago eta Maltzaga behera.

## ASTO-ANDREA

Bein Pernando'k, jan da edan egin ondoren, kontua garesti xamarra zala-ta, izan zun eztabaida zorrotz bat ardantegiko etxeoandreaekin da baita itz garratzak esan ere, Pernando zerbait eranda ere ba-zegon da.

Orrelako gertakizunari tabernari geienak ez diote jaramonik egiten, baiñan, Mari Pipermiñ'ek (izena ongi jarri zioten pipermin utsa zanez) ara nun deitu zion gure Pernando'ri juezagana. Epaikari jaunak esan zion:

—Pernando, iñor iraindu edo erasotzea debekatuta dago eta ogeitabost pesetako multa ordaindu bear duzu.

—Baiña, nik zer esan nion ba atso oni?

—Atsoa deitu zenidan—, diño bazter batetik etxeoandre pipermin arrek.

—Ala da, izan ere. Nola deituko nion ba?

—Ba, alakorik —juezak—, andra bati etzaio deitu bear.

—Da, asto bati deitu al-nezaioke andre?  
—Pernando'k.

—Astoa —esaten dio juezak—, abere bat da, eztu zentzunik eta nai duzuna deitu zenezaioke. Gaiñera, asto bati andre deitzeak ez-paitu ezer txarrik.

—Orduan, barkatu, epaikari jauna, oker

ibilli bainaiz eta atso onekin utsa zuzendu bear dut.

Eta Mari Pipermiñ'i ortzak erakutsiz onela ekiten dio:

—Andrea, andrea, andrea eta milla bider andrea!!!

Gure Pernando urtebeteko lasaituko al-zan!

## LXVII

### PERNANDO'REN AMETSA

Udako egualdi sargori baten, Pernando oian bueltaka zebillen luak artu eziñik. Alakoren baten, kostata-abar (1) luak artu zun. Baiñan, ametsetan ere beroak etzion aldegiten eta or nun asi zan gure Pernando egarriaren-egarritz iturriak ez-eze ibaiak ere agortu bearrian. Nai ardua, nai ura edo nai petroleua, edozer bear zun egarriak itoko ezpa'zun. Bere ametsean, oraintxe, errietatik eta batez ere tabernetatik urrutiko mendi legorren batean edo naiz desertuan bertan zebillen. Zutik egon eziñik ziara auldu zan eta bere gorputzari amaineman (2) zion. Batera batera, erori zan leza-

---

(1) Ederki kostata, Eibar-Plazentzitan.

(2) Amain emon, dejar, soltar, Eibar-Plazentzitan.

-zulo edo inpernuren baten, baiñan, orra or-eriotzara dijoalakoan nun azaltzen dan Meltxor'eneko tabernan. Ura zan arnas-estua! "Ia, Meltxor, atera zan pitxar aundi bat sagardo beteta". Eldu kirtenetik eta ura zan tragua ura! Abotik kendu gabe itxu-itxuan pitxar erdi ustu zuan... Baiñan, barruko asetasunak edo garraztasunak esnatu zun Pernando. Eta ara nun agertu zan lurrean, oge barrenean jarrita oriñel edo pizontzia eskuetan erdi ustuta zuelarik...

"Asko duk ba, au ere neri gertatu bearra", zion Pernando'k bere buruari.

## A Z K E N A

## ARKIBIDEA

Esanbearrak...	7
I. - Pernando larri ta parragarri .....	11
II. - Giltza ta puroa .....	14
III. - Ilburuko zuhurra .....	15
IV. - Illargiko pertsonak .....	18
V. - Pernando'ren gose-bildurra .....	19
VI. - Erantzupen zuhurra .....	23
VII. - Zenbat Jaungoiko? .....	23
VIII. - Amaiketako legorra .....	24
IX. - Pernando errementari ikasle .....	26
X. - Alatsu!.. .....	27
XI. - Ez gabez eta ez egunez .....	29
XII. - Dirurik ez eta biarrik ez .....	30
XIII. - Pernando ollo batekin aurrez-aurre .....	31
XIV. - Kontrako indarra .....	33
XV. - Emengo txardinak, orko arraultzak eta ango... txakurra .....	35
XVI. - Ori duk arrazoia .....	37
XVII. - Eibar ta Plaentxia .....	38
XVIII. - Joxe Martin'en ilberria .....	39
XIX. - Pernando'ren aita .....	42
XX. - Gose t'erdi .....	42
XXI. - Eman ahal ba'litu! .....	44
XXII. - Eutsi! Eutsi! .....	45
XXIII. - Ken akit!.. .....	46
XXIV. - Egundoko zuloa .....	49
XXV. - Pernando pikutan .....	49
XXVI. - Gogoko tokian aldapik ez .....	50
XXVII. - Arrain-ogien ugaltzea dala-ta... .....	51



XXVIII.	- Gaitz erdi .....	54
XXIX.	- Bakoitzeko bosteun .....	55
XXX.	- Orra kanbioak .....	56
XXXI.	- Arrain diruzaleak .....	58
XXXII.	- Illargia ala eguzkia? .....	59
XXXIII.	- Lumatu berri .....	61
XXXIV.	- Irugarren bataioa .....	62
XXXV.	- Nor ote? .....	63
XXXVI.	- Bolo bolua!.. .....	64
XXXVII.	- Zinean .....	67
XXXVIII.	- R. I. P. ....	68
XXXIX.	- Zubipeko amorraiñak .....	69
XL.	- Pernando ta Anttoni .....	70
XLI.	- Urteberri, urtezar, Pernando beti galtza zahar .....	71
XLII.	- Bi il .....	73
XLIII.	- Usaiñak gose, okela ase .....	75
XLIV.	- Pernando'ren lenengo maite kanta .....	76
XLV.	- Gure Migell!.. .....	77
XLVI.	- Pernando argizale .....	79
XLVII.	- Bat eta geiegi .....	81
XLVIII.	- Pernando biozpera .....	81
IL.	- Artu eta eman .....	83
L.	- "Berdela"ren larriak .....	86
LI.	- Zerako... Medikua! .....	88
LII.	- Euskera ikasteko epe urbilla .....	89
LIII.	- Legoi eiztari .....	90
LIV.	- Irratsi prantsesa .....	92
LV.	- Zozuak beleari... .....	93
LVI.	- Janak jan .....	94
LVII.	- Iñauteritan .....	96
LVIII.	- Eztuk berdin .....	97
LIX.	- Pernando'ren sudurraren margoaren...go rri .....	98
LX.	- Pernando eta katamotza .....	99
LXI.	- Begiondokoa .....	100
LXII.	- Urrearen otsa! .....	101
LXIII.	- Utsak otsik ez .....	105
LXIV.	- Propiña ta guzi .....	106
LXV.	- Bata zu ta bestea ni .....	107
LXVI.	- Asto-andrea .....	111
LXVII.	- Pernando'ren ametsa .....	112